

Herriko bestak

Arraioz, Elbete, Eratsun, Oiz, Sara, Txokoto...

BERA/ARESO → 11-29

Mendi itzuliak irailaren 4an eta 18an

ITUREN → 19

Hirigintza plana behin betiko onarpenaren zain

LEITZA → 28

Taloaren eguna irailaren 11n

BAZTAN → 31

Euskararen ordenantza jopuntuan

Baztan-Bidasoko zaborrendako transferentzia planta Donezteben eginen da 22,3 milioi euroko aurrekontua du eta 2012rako lanean hasiko dela aurreikusia dago → 17

Lehenbiziko txapelketa honetan Europako 13 taldek parte hartuko dute lau multzotan banatuak. Elizondoko kanporaketan Baztan taldea Alacanteko El Campello eta Angeluko Hardoy taldeekin lehiatuko da. Itzulerako partida Alacanten jokatu da, irailaren 10ean.



ELIZONDO | Irailaren 3an, 16:00etan, Laxoa plazan

ARGAZKIA: ONDIKOL

Europako zuzeneko lehen pilota txapelketaren kanporaketa → 42

Amaia IRAOLA | Doneztebeko akordeoilaria

«Cirque du Soleil-rekin urte eta erdiko bira eginen dut baina, nork daki, agian denbora gehixeago ere egonen naiz»

Pasa den maiatzaz geroztik ikuskizuneko kide da. Chicagotik erantzun digu. → 3

ERREPORTAJEA → 4-5

Altxata elkarteak 20 urte bete ditu Etxalarren

Uztailaren 31n egin zuten ospakizunean Pello Apezetxea omendu zuten.

ZOKKETAK → 51



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra

Isidoro Fagoaga

BERAKO UDAL MUSIKA ESKOLA



AURREMATRIKULA:

Irailaren 1etik 9ra

BULEGO ORDUTEGIA:

9:30-13:00

Animatu eta etor zaitez musikaz goatzera
Inoiz ez da berandu!

Berako Udal Musika Eskola

www.berakoudala.net/udala/instalazioak/musikaeskola

Logia, 26 - BERA - Tel/Fax: 948 631 205 - musikaeskola@berakoudala.net

One, two, three... GO!!!



acQrn
Quality Language Learning



bulegoa irekia



inaugurazioa

Betatik aitzinera.
Gonbidatuak zaudete!!!



ikasturte hasiera

948 637 062 edo 607 269 231

Koskontako bidea 11. behe LESAKA (Futbol-zelaiaren parean)
www.acornlanguages.com info@acornlanguages.com

Zortzi urterekin hasi zen Amaia Iraola doneztebarra akordeoia ikasten. Ahizpa ikusten zuen akordeoiarekin eta berari ere interesa piztu zion instrumentuak. Gustatu,

liluratu eta bere egin zuen musika tresna, bertze gorputz atal bat bihurtzeraino. Agorreta Musika Eskolan jo zituen lehen notak, lehen piezak. Sariketa, erakustaldi

eta emanaldi askoren ondotik Cirque de Soleil-raino eraman du musikak, Chicagoraino, maiatzetik da ikuskizuneko kide. Handik erantzun ditu gure galderak.

Amaia IRAOLA | Doneztebeko akordeoilaria

«Zirkoak aspektu guzietan duen maila ikaragarria da»

M. MARTIARENA

Nondik etorri zaizu Cirque du Soleil-en parte izateko eskaintza?

Orain arte Iñaki Dieguezek egiten zuen lan hau. Nire irakaslea izandakoa da. Berak komentatu zidan postua libre geratuko zela eta zirkoak casting epea zabalduko zuela. Aurkeztera animatu ninduen eta zortzi akordeoilariaren artean aukeratua izan nintzen. Inoiz ez nuen pentsatuko zirko batean lan eginen nuenik eta gutxiago Cirque du Soleil bezalako batean.

Maiatzetik zaude bertan. Nolakoak izan ziren lehen egunak?

Orain Chicagon nago, baina lehendabizi Montrealera joan nintzen. Zirkoaren egoitza nagusia han dagoelako. Aste beteko ikastaro bat eman zidaten. Emanaldiatarako nola makilatu irakatsi zidaten. Ikuskizunerako jantzia egin zidaten eta ondotik Minneapolisera joan nintzen zirkoa une horretan han zegoelako.

Zenbat denboran ibiliko zara herrialdez herrialde?

Hasera batean urte eta erdirako bira egiten dut. Baina nork daki, agian denbora gehixeago ere egonen naiz. Gure ikuskizuna Amerikan egiten dena da eta leku berean bi hilabete egiten di-



UTZITAKO ARGAZKIA

Amaia Iraola akordeoilaria Cirque du Soleil-en erabiltzen duen jantziarekin.

tu gehienez. Chicagon pasako dugu uda guztia. Udazken aldean Calgaryra joanen gara eta eguberrietarako Mexikon egonen gara.

Nolakoak da eguneroko martxa?

Goizetan nahiko libre egoten naiz eta nire gauzak egiteko aprobeztatzen dut. Normalean zirkoan bazkaltzen dut eta ondotik soinu probekin hasten gara. Gero ikuskizunerako makilatu eta jantzi egiten gara. Egunean bi emanaldi izaten ditugu eta

SENTIMENDUAK

«Oso gustuko dut akordeoia jotzea, sentimendu politak eta onak sentiarazten dizkit. Jende aurrean jarrita urduritasun puntuarekin egon arren, lasaitu eta gozatu egiten dut. Oso instrumentu fina da eta aukera asko ematen ditu, bakarlari gisa edo taldean jo baitaiteke, musika estilo desberdinak konbinatuz».

bakoitzak bi ordu eta erdiko iraupena du. Lehenengo arratsaldeko lauretan izaten da eta bigarrena iluntzeko zortziretan.

Zerk harritu zaitu gehien?

Zirkoak aspektu guztietan duen maila ikaragarria da. Mundu osoko ikuskizunik handiena da. Lanean ari garenen arteko giro eta harremana oso ona da eta uste dut hori jendeak nabaritzen duela. Azken batean familia handi bat baikara.

Zer da Euskal Herritik gehien faltan botatzen duzuna?

Zirkoan oso sukaldari onak ditugun arren, amaren bazkari goxoez asko oroitzen naiz. Familia eta lagunak ere faltan botatzen ditut eta nola ez, bestak ere bai.

Cirque de Soleil-ra joan aurretik nolako lanak egin zenituen akordeoiarekin?

Hendaiaiko eta Hondarribiko dantza taldeetan akordeoilari gisa ibili izan naiz. Agorreta Musika eskolan ere akordeoi eta musika hezkuntzako irakasle gisa ere aritu nintzen. Txapelketa askotan parte hartu dut. Eta akordeoiaren teknika inguruko kurtsuak egin ditut Iñaki Dieguez, Jacques Mornet, Frederic Deschamps, Luciano Biondini eta Ane Landaren eskutik.

Zer da akordeoia zuretzat?

Hobbya izateaz gain, lana bihurtu den pasioa da. Oso gustuko dut akordeoia jotzea, sentimendu politak eta onak sentiarazten dizkit. Jende aurrean jarrita urduritasun puntuarekin egon arren lasaitu eta gozatu egiten dut. Oso instrumentu fina da eta aukera asko ematen ditu. Bakarlari moduan edo taldean jo baitaiteke musika estilo desberdinak konbinatuz.

ELKARTEAK → UZTAILAREN 31N EGIN ZUEN OSPAKIZUNA

Altxata Elkarteak hogeit urte bete ditu Etxalarren

Elkartearen sortzaileetako bat izan zen eta bertze hainbat arlotan nabarmendu den Pello Apezetxea erretoreari omenaldia eskaini zitzaion

Uztailaren 31n ospatu zen Altxata kultur elkareren 20. urteurrena. Goizetik trikitilari eta txistulariek kalejira egin zuten meza aitzinetik. Ondotik, txalaparta doinuak aditu eta gero, Berako musika bandak eta borts herrietako kantariekin osatutako abesbatzak emanaldia eskaini zuten.

Altxata elkartearen historia eta jardueren berri eman zuten batzordeko kide diren Axun Maia, Edurne Elizagoien eta Lorea Arangoak eta gaur egun 140 bazkide baino gehiago dituela gogoratu. Pello Apezetxea herriko apezka omentzeko ere aprobeztatu zuten urteurren ospakizuna.

Aitor AROTZENA

1991ko otsailaren 24an sortu zen Altxata Kultur Elkartea Etxalarren, Bide Ona ikastola itxizterakoan. Ikastolaren inguruan zebilen jendearen artean, euskal kulturaren inguruan indarrak kultur elkarteak bildu zituzten eta gaur gaurkoz, kulturarekin eta kirolarekin zerikusia duten ekitaldi gehienak Altxata-

ren eskutik pasatzen dira Etxalarren. 50 dantzari baino gehiago biltzen duen dantza taldearen ardura dauka elkarteak. Orain irakasleak kanpo-koak badira ere, urteetan borondatez aritutakoak dira Emma Sanzberro, Mirari Ansalas, Maria Astier eta Itziar Iriarte, orain Anabel Arburua dabilen bezala.

Hogeit urtez herriko hau-

rek izan dute pilota eskolan ikasteko aukera. Herrikanpo ere txapelketa frankotan parte hartu izan dute Bortzirietan eta Belate Torneoetan ere. Beti irakasle nekazezina izan dute bere ondoan, Joxe Mari Maia eta dagoeneko gure artean ez dagoen Joxe Mari Arburua, urteetan bere ondolan izan zuena. Inguruko bideak, mendiak eta baz-

ARGAZKIA: IRATI LUJUA

«Dantzariak lotsak agerian» argazkiak irabazi zuen Altxataren 20. urteurrenaren kariatara antolatutako argazki lehiaketaren epaimahaiaren lehen saria. Herriko dantza taldea da Altxata elkarteak kudeatzen duen ekitaldi ugarietako bat.



terrik ederrenak ezagutarazten ere ibili dira Joxe Mari Arburua eta Periko Berrueta. Hogeit urtez 200 bat mendi irteera ere egin-katu dituzte eta oraindik ere ateraldi horietan parte hartzen dute oraindik ere herriko, haur, gazte eta helduek. Kirol arloan, 1994 eta 1995ean mendi bizikleta ibilaldiak ere antolatu zituen Altxatak eta *Kakapirri* futbol talde-

ak ere bere ibilaldia egin zuten.

GASNA FERIA

Baina Altxata elkarteak urtez urte antolatzen duen ekitaldien artean garrantzitsuena Gasna eta Artisan Feria da, 18 edizio bete dituena. Altxata elkarteak Axun Maiak aipatu digunez, «orduan batzordean zegoen Lurdes Indaburu eta EHNE

PELLO APEZETXEA, OHIKO BAZKIDE BAT BAINO GEHIAGO

Makila eta zapela euskararen zaindaria rendako

Altxata elkarteak Pello Apezetxearen lana eskertu nahi izan zuen 20. urteurrenaren ekitaldietan. Herriko erretorea «ez baita bertze edozein kide», Altxatak Aginte Makila eman zion, «baina ez diogu agintari moduan eman nahi, bide erakusle moduan baizik. Hori izan baita Pello». Ez zen oroigarri bakarra izan. Honela, baserriarren ordezkariak Lurriztierra, Urritzokieta, Gorosurreta eta Larrapil-Sarriku auzoetako bideak egiteko Pello Apezetxeak egindako lanak eta dirulaguntza eskaerak gogorarazi zituen. Txistulari taldeak ere kantu pare bat eskaini zizkion, apezak berak eman baitituen lehen txistu klaseak. Garbiñe Maia eta Xabier Etxarrek Aurreskua ere dantzatu zioten Pellori. Usoa Nekazari Koperatibaren sortzaile gisara ere oroigarria jaso zuen. Euskaltzaindiako Andres Iñigok, Pello Apezetxeak erakunde honetan egindako lanak goraiatu zituen, ohorezko euskaltzain ere baita Etxalarko apezka. Eskolan euskara ikasten ez zen

garaian, hamabost ikasturtez Etxalarren izan zen Bide Ona ikastola sortzen egindako ahalegina ere eskertu zioten, baita euskaraz alfabetatzen edo Euskara Batzorde eta Mankomunitatean egindako lanak ere. Ttipi-Ttapa aldizkarian ere hainbat lan egin da Pello Apezetxea, herriko berriemaile edo erredakzio taldeko kide bezala eta gaur egun Ttipi-Ttapa Fundazioko presidentea da. Gainera, Etxalarri buruzko liburuak eta argitalpenak karrikartuak ditu eta gaur eliz atarian hain dotore ageri diren hilerriak berreskuratzen egindako lana ere goraiatu zen. Guraso Elkarteak eta Etxalarko Udalak ere oroigarri bana eman zioten eta denen borondatea laburbilduz, Bortzirietako IKA euskaltegikoek txapel dotore bat jantzi zioten, *Pello, euskararen zaindaria* zioena.





GASNA FERIA

«Eskualdean egin zen lehena izan zen eta 29 gasna aurkeztu ziren lehiaketara»

Axun MAIA
Altxatako kidea

DATUA

150

ARGAZKI LEHIAKETAN
Epaimahaiaren lehen saria: Irati Lujuaeren *Dantzariak lotsak agerian*. 2. saria: Garazi Lujuaeren *Txantxangorria*.
Publikoaren 1. saria: *Sega mehetzen* (Ana Indaburu).
2. saria: *Santa Kruzeko zubia* (Itsaso Elizagoien)

lan egiten zuenez, bazituen kontaktuak gasnagileekin eta honela sortu zen ideia, eskura zegoen gaia zen. Eskualdean egin zen lehena zen eta lehenbiziko urtean 29 gasna aurkeztu ziren lehiaketara. Arrakastatsua suertatu zen eta horretan segitu dugu. Egun hau gure eskualdean erreferentzia bat bihurtu dela uste dugu».

Banaz bertze urtero 20 gasna aurkezten dira lehiaketara, eskualdean egin den lehen ardi gasna lehiaketa izan da eta eskualde osoa hartzen duen bakarra. Eskualdegileak ere klase guzietakoak eta Euskal Herri oso-tik ekarri izan dira, 16 bat urtero. «Saiatzen gara ahal bezain gutti errepikatzen, nahiz eta nahiko modu finkoan etortzen direnak ere baditugun...».

Lehendik datozen ospakizunetan ere lekukoa hartu du Altxata elkarteak. Honela, inauterien antolaketa Altxataren esku dago oraindik eta elkarretatik onartzen dutenez, «bereziki honengatik dira guretzat hain garrantzitsuak kide gazteak. Eta

gainerako gai guztietan ere beren ikuspuntua beharrezkoa dugu». Etxalarren betidanik ospatzen den Usategietako Igan-dean edo inguruan ere urte luzez lan egin du Altxatak, ekitaldiak antolatatu edo plazan ostatua paratuz. «Hasieran ikastolarako dirua lortzeko paratzen zen eta orain dantza taldearen gastuetarako», aipatu digute.

ALTZARI ZAHARRAK, ZIRIMOLAN...

Baina badira Altxata eginkatu eta dagoeneko egiten ez diren kultur ekitaldiak ere. Honela, duela hemeretzi urte altzari zaharren erakusketa egin zen, «polita eta arrakastatsua, hura ere herritarren laguntzarik gabe ezinezkoa izanen litzateke» diote Altxatatik. Hainbat urtez, Zirimolan kultur egunak ere antolatatu ziren, inguruko herriekin batera, Sara, Azkaine, Zugarramurdi eta Berako elkarte eta gaztetxeekin batera egindako jardunaldiak, «herri hauetako jendearen elkarretaratzea sustatzeko». Hogei urtetan, hamaika lan.

AXUN MAIA ETA GARBIÑE MAIA, ALTXATAKO KIDEAK

«Etxalarek gaur egun duen kultur errealitatearen hezurdura Pello Apezetxeari zor diogu»

A. AROTZENA | ETXALAR

Nola eta zergatik sortu zen Altxata elkarteak?

Ikastola izan zen Etxalaren, 1976tik 1991ra. Larraburuan izaten zen eta Haur Hezkuntza eskaintzen zen, hiru urte egiten zituzten eta gero erdal eredura pasatzen ziren, orduan bertzerik ez zelako. Baina ikasle kopuru batetik beheiti Nafarroako Gobernuak dirulaguntzarik ez zuela emanen jakinarazi zuen eta eraman ezina zen. Gainera, eskolan ere D ereduarekin hasi ziren. Orduan, ikastolaren inguruan baziren giza baliabide batzuk eta diru bat, eta euskal kulturarekin lotutako zerbait egitea proposatu zuen Pello Apezetxeak. Zehazki, 1991ko otsailaren 24an sortu zen Altxata elkarteak.

Zein da antolatzen dituen ekintzen artean garrantzitsuena?

Gasna Feria, dudarik gabe. Guri esfortzu gehien suposatzen diguna behinpin hori da. Egun intentsoa izaten da eta aitzinetik egin beharreko prestaketak, gauza bat dela, bertzea dela, luze joaten dira. Parte hartzen ere jende aunitz mugiarazten du: 16 eskulangile etortzen dira urtero.

Etorkizunera begira, egitasmo berririk baduzue?

Aurten, Altxata Egunaren aitzakia-rekin argazki lehiaketa egin dugu lehen aldiz eta izan duen arrakasta iku-

sita, 150 argazki aurkeztu baitziren, segida izan dezakeela ere pentsatu dugu. Urteik urtera egiten ahal den zerbait da, gai ezberdinak jarriz... Buelta batzuk ematen ahal zaizkio. Altxata Egunari segida emanen diogun edo ez diogun ez dakigu. Aurtengoak hagitx arrakasta handia izan du, baina Pelloren omenaldia zegoen tartean eta hori gauza handia zen. **Zertan aldatu da Altxata elkarteak 20 urteotan?**

Bazkide kopuruan pixko bat goiti egin dugu. Hasieran 100 bat bazkide izanen ziren eta, nabarmen ez, baina pixkanaka goiti egin dugu, 140 bat izatera ailegatu arte. Hasierako helburuak berdin mantentzen dira, euskal kulturaren inguruan lanean aritzea. Hainbat arlotan egin da hori eta kontent egoteko moduan gaude.

Omenaldia eskaini diozue Pello Apezetxeari. Zergatik?

Altxata egunean agertu ziren hainbat arrazoi eta seguru ez genituela denak ukitu. Bereziki euskal kulturaren egin duen lan izugarria eskertu nahi izan genion. Pello han zegoen ikastola sortu zenean, Pello han zegoen ikastolatik kultur elkartera pasatu zenean, herri honetan gaur egun duen errealitatearen hezurdura Pello Apezetxeari zor diogu. Altxataren sortzaileetako bat eta bazkide arrunt bat baino aunitzez gehiago da.



Axun eta Garbiñe Maia, Altxatako kideak.



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Onddo, mauri eta bertze

Gaur abuztuaren 1a da, eta kilo bat pasa onddo bildu ditut. Arraroa egiten zait. Nere ttikitako oroitzapen bat udazkena eta onddoetara lotua dago. Hori zen bere sasoina, udazkena, ez zitzaigun gogoratzen ere uda erdierdian onddoketan gatea... Gauza bertsua gertatzen zait maurekin: maiatz-ekaineko fruitua zela uste nuen baina hara non, bai mendian mauri-basak, baita aitaren baratzean, hantxe daude gorri-gorri eginak!!!! Sanjose loreak ere erotzen hasiak dira: San Jose martxoaren 19an da, zer deabru ari dira azken urte hauetan otsail erdian loretzen? Eta kamamilarena?... kamailaren sasoina abuztuko Ama Birjinatik, iraileko Ama Birjineraino da. Ez ba, hortxe dugu kamamila harro-harro aspalditik gure mendietan.

Baino ez da natura aldrebesten hasi den bakarra, gu ere gauza arraroak egiten hasiak gara: minifaldak udakoak ziren duela gutti arte, gaur egun negu beltz-beltzenez ere ikus ditzakegu. Eta neguko *cuello alto* trikotak?. Hoiere ere urtean zehar ageri dira... Bon, barkatu, guzti hau erdi brometan bota dut... bainan bertze erdia... ez dakit ba...

Ezpala

Aitor AROTZENA

Erradarra bai, errepiderik ez!

Tarteka suertatzen dira honelako esperpen-toak. Abuztuaren 5etik martxan dago N-121A errepidean, Belate eta Almandozko tunelen artean abiadura zainduko duen erradarra. Normala litzateke, alde guzietan halakoak paratzen ari direla kontuan hartuz, baina errepidea itxia dago, sanferminetan kamioi batek su hartu eta tunel zati bat hondatu zenetik. *We are the champions!*

Nabarmentzekoak



Antonio VALDERRABANO
Berako idazlea

38 urtez Beran mediku izandakoak, *Bera y el Bajo Bidasoa desde el siglo XIX* liburua argitaratu du. 2004an erretiratu zenetik zenbait artikulu idatzi ditu, baina hau da lehen liburua.



Judit SAIZAR
Leitzako kirolaria

Olinpiadetako distantzian (1,5 km igerian, 40 km bizikletan eta 10 lasterka) Nafarroako Triatloixapelketairabazi zuen abuztuaren 7an Iruñean, oraindik 17 urte besterik ez baditu ere.



Pello APEZETXEA
Etxalarko apezka

Urte hauetan guztietan egindako lana eskertuz, Etxalarko Altxata Elkarrekin omenaldia eskaini zion uztailearen 31n. Hainbat izan ziren oroigarriak eman zituzten eragileak.

Atzera begira → 1998.09.10 / TTIPI-TTAPA 237. zbk



Artikutza: Donostiaren auzoa Goizuetako bihotzean

Urtean behin, San Agustin egunean, natur inguru zoragarri honen atea zabaltzen ditzutela-eta, erreportajea eskaini zion TTIPI-TTAPAK Artikutzari. Goizuetako udalerraren barnean egon arren, 1919ko urtarillaren 27an geroztik Donostiako Udala da 3.700 Hektareako lur eremu honen jabea, bertako ur baliabideekin hiriburua hornitzeko erosi baitzuen. 15 bizilagun bizi ziren orduan auzoan, baina hauen eguneroko gorabeherek baino historia luzeagoa gordetzen dute bere baitan Artikutzako lur, ur, zuhaitz eta basoek, historiaurreko hilobiak, Erdi Aroko burdinolak... Hauetako batzuk ageri ziren erreportajearen.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urroz, Iruñe eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Eneko Mitxel, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia...


Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritetako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

| | | | | | |
|--------------------|----------|-----------------------|-----------|--------------------------------|----------|
| Hego Euskal Herria |37€ | Europa |55€ | Baztan, Urdazubi eta Malerreka |31€ |
| Ipar Euskal Herria |55€ | Amerika eta Australia |123€ | Leizta |15€ |



Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak
diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Euskarabidea: Protagonista berria du antzezlanak, baina gidoi bera

Nestos ESTEBAN SCALONI (EHEko kidea)

Duela lau bat urte, Carlos Perez-Nievasek Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren ardura hartu zuen. Orduan, euskaldun eta euskaltzaleak entretenituko zituen antzezlan bat egitea proposatu zuen gobernuak, UPN-CDNren hizkuntza politikaren gidoia jarraituko zuena, noski. Hasieran ENAI izenarekin batailatu bazuten ere, aurki, Euskarabidea izen euskaltzaleagoa jarri zioten antzerkiari. Antzezlan honek beteko zuen helburu nagusia ere argia zen: euskalgintzaren lana neutralizatu eta desaktibatu asmoz, publiko euskaltzalearen arreta guztia diru-laguntzen ingurura erakartzea, bide batez Nafar gobernuak euskaldunok osatzen dugun hizkuntza komunitatearen aurkako politika etnozida lasaiago aplikatzen jarraitu ahal izateko. Euskarabideak baina, itxurak egingo zituen protagonista baten beharra zuen ezinbestean; euskara ezagutu eta aurretik euskalgintzan aritutako txotxongilo bat bazen askoz hobe, eta hara non Xabier Azanza topatu zuten. Xabierrek paper nagusia hartzeari baiezkoa eman zion, euskaldunon eskubideen aurkako ikurra den *Ley del Vascuence* bere egitea eta onartzea ez zitzaion ia ezer kostatu; are gutxiago soldata oso ona bueltan etorriko zitzaioala ikusi zuenean. Azanzak plazaratu berri duen bere agur-gutunari erreparatuta, badirudi berak urte hauetan guztietan ez duela izan Nafar gobernuaren hizkuntza politikan erantzukizunik, bera beti saiatu izan dela euskara eta euskalgintzaren alde lan egiten. Aldiz, errealitateak dio bera izan dela azken urtetan Nafar Gobernuak saldu nahi izan digun irudi adeitsu eta 'euskaltzalea': lau urtez euskalgintza soson inguruan endredatu duena, lau urtez Nafar gobernuaren aurpegia zuritzen saiatu izan dena (euskalgintzak antolatuta dituen ekimen eta jaialdietan Nafar Gobernuaren izenean parte hartuz, ekitaldi batzuetan hitza hartzeraino...) (...) Hala, UPN-PSNren gobernu berria iritsi da; protagonista zaharra bide erditik kendu eta Maximino Gomez jarri du Azanzaren ordean. Argi dago antzezlanak ez duela helburua bete eta orain aurpegi aldaketa baten bila dabilta, baina hizkuntza politikan erroko aldaketak planteatzen ez diren bitartean antzezlanak euskaldun eta euskaltzaleontzat behinik behin, hasieratik zaharkitua geratu dela esan behar da. Azken finean protagonista berria baina gidoi bera. Iraganeko formula makurren aurrean beraz, euskaldunok behingoz euskaraz bizitzeko, erroko aldaketak eragin behar ditugu nahi eta nahi ez, bai maila sozialean, politikoa zein juridikoan. (...) Euskaldunok bizi dugun egoeraren iraultze bide horretan, euskaraz bizitzea ahalbideratuko duen hizkuntza politika burujabea aldarrikatzea klabea izango da ere, bertatik bertara euskaldunok erabakiko duguna, eta euskarari Euskal Herri osoan benetako ofizialtasuna aitortuko dion hizkuntza politika, hain zuzen ere. Hor kokatzen dugu aspaldian Kontseiluak mahai gainean jarritako hizkuntza politika eragingarriaren proposamenarekiko euskalgintza aurrerantzean egin beharko duen gizarteratze lana. Iruzur berrien aurrean hortaz, ekin diezaiozun gogotsu Euskal Herriaren berreuskalduntzeari, ekin diezaiozun euskalgintzaren arteko elkarlana indartze eta eraginkortzeari. Helmuga: Euskal Herri euskalduna!

Eskoltatua eta biktimizatua? Ez, milesker!

Tere SAEZ (Andrea Kolektiboa)

Emakumeen arteko dibertsitatea onartzen dugu, baita genero biolentzia sufrizten dutenena ere. Emakumeak dituen arrisku maila ezberdinak dira, baita arrisku horretaz daukan bizipen subjektiboak eta norbere segurtasunerako lagungarriak izan daitezkeen baliabide edota neurrietaz duen ikuspegia ere. Horregatik, ongi iruditzen zaigu hala eskatzen duten emakumeek eskoltak izatea. Modu berean, eskolten gaia aztertu behar da, kasu guztietan behar diren edo ez jakiteko, parametro hauetatik: Lehenik, emakumearen bizia arriskuan dagoelako beharrezko bada, berak nahi badu berehala eskolta jarri. Harrigarriena zera da, hain errealitate gordin eta garbien aitzinean, nola ez zaien aitzinetik jarri. Azken urteetan eta emakume batzuei bakarrik jarri zaie. Bigarrenik, eskolta eramateak emakumeen autonomia indartzeko balio ote duen galdetu behar dugu. Eguneko ordu guztietan bizitza kontrolatua izateak nekez bermatuko du autonomia pertsonala. Biktima bezala biharazten zaitu. Zure inguru hurbilenetik isolatzen ahal zaitu, ezin baituzu eskoltekin konpartitu. Eta denboratarte batean eskoltaz paso egin eta zuren bizia egitea erabaki, eta zerbait gertatuko balitz, erruduntasun sentimendua ikaragarria litzateke, genero biolentzia jasaten duten emakumeei jada sentiarazten zaiena baino handiagoa (telefonoa hartu diozu, ez duzu salatu...). Seme-alabekin ere arazoak izan ditzakezu, deus ez ulertzea edo filmetako agente espezialak sentitzea. Orduoro egiatzko segurtasuna bermatzen du? Ez. "Lehenago hilik ni gabe baino" dioen erasotzaileak zirrikituak bilatuko ditu, eskoltarik gabe bizitzen diren unek badirelako. Emakumearentzako segurtasun neurri onena, erasotzailea karrikan badago, eskolta erasotzaileak izatea da, hau zaintzeko eta kontrolatzeko. Ez dezala inoiz utzi. Oinak karrikan jartzen dituen momentutik kontrola orduoro. Beraz, karrikara ateratzeko ordutegia mugatzea... Horrek bertze abantaila dauka, bere haragian somatuko duela zer den bizitza, mugimenduak eta pentsamenduak kontrolatzea, berak erasotu duen emakumearekin egin duen bezala. Eskoltak beharrezko neurri bezala planteatzeak genero biolentziaren aurkako borrokan prebentzioari eta herritarren inplikazioari lekua kentzen dio. Egida da bateragarriak izan daitezkeela, baina hasieratik babes horretan indarra jartzeak bertze neurri batzuk ez hartzea ekar dezake eta bereziki, jendarteak ez ulertzea genero biolentzia eragiten dutenak borrokatzeko erasotzailea isolatu eta baztertzeko eta herritarrek inplikatzeko dela onena. Emakumeak bere autoestima berreskuratzeko egin beharrek lana ere traba dezake. Horregatik, uste dugu ez dela eskolta eskatu behar neurri orokor gisara. Bai, erasotzaileak kontrolatu. Emakumeei arreta osoa eta pertsonalizatua, bizitza duinerako bermeak, autodefentsa eta autonomia pertsonalean aitzinera egiteko baliagarriak diren neurriak.

Irakurleak mintzo

Sorosle
ilehoriari mila
mila esker

Jon Mikel LIZASO URKIOLA

Kaixo TTIPI-TTAPAKo irakurle horri:

Abuztuaren 10a da gaur. Egun zoragarria dugu goiz goizetik, ongi pasatzeko eta udako oporralditxo lasai ederrean igarotzeko. Baina badira egun malapartatu batzuk pertsona baten bizitzan. Niri gaur egokitu zait horietako bat bizitzea eta lerro xume hauen bidez adierazi nahi nizuke.

Berako igerilekua; jendez gainezka, familia guztiak zoriontsu udako arratsalde bero bat zipristin artean igarotzen. Aita, ama, semea, iloba, lagunak... 17:35 dira eta nire seme eta haren bi lagunekin igerilekuan jolasten ari naiz, salto, itzulipurdi... Bat batean igerilekuko soroslea bere bainujantziz gorri eta Gurutze Gorriko kamisetarekin ziztu bizian uretan murgildu da. Nire burua biratu eta hor ikusten dut neska bat uraren gainean konorterik gabe. «Ai ene!» –diot nire baitan–. «Nor ote da? Zer gertatu da? Herriko gaztetxoren bat ote?». Baina neskatoaren bainujantzia ikusi orduko ohartu naiz «gure kuadrillako baten alaba duk? Zer pasatu da?». Nire buruari galdera asko segundo gutxitan. Sorosle ilehoriak uretatik atera du neskata eta ekin dio erreanimazioari. Jendea izuturik, zalapartaka. Igerilekuko zaindari trebeak lana ongi beteaz

neskatxa berriz mundu honetara itzuli eta bizi gazte bat salbatu du.

Nire pentsamenduan, segundo gutxitan ez gara ezer eta beste segunduan zerbait bagarela pentsatzen dugu. Egun zoragarria zena ia-ia beltz jarri zaigu.

Idazki txiki honekin nire momentuko urduritasun eta aitatasun sena ateratzen zait azalera. Kontuz eta tentu handiz zaindu behar ditugu gure seme, alaba, ilobak... Gertaera hau edozeini pasa dakiokenez, argi ibil gaitzen denak gure bizitzako momentu guztietan. Besterik gabe, bertsakada haundi bat eta bosteko bat Unai Rodriguez Kortari, Berako igerilekuko sorosleari.

Herri afaria
Goizuetan

Juan Antonio LEKUONA

Amabirjin Karmengo bezperan, San Juan bezperan bezalaxe, suak egiten ziren herriko etxe askoren aurrean, arbi hazitakoekin eta hau dela eta Herri-Afaria antolatu zen Herriko plazan, Lehengo ohitura zaharra berreskuratzeko asmotan, bakoitzak bere jana eta edaria eramanez Afaria, sua eta saltoak, herriko plazan egin ziren, eguraldi bikainekin. Jendearen erantzuna izugarria!!! Erroldatuta gauden biztanleen %22k parte hartu genun.

Jarraipena urtero izan dezan opa dugu eta ia 2012an biztanleen %25a gauditzen dugun. Zenba-



Bota bertsoa

Mikel TELLETXEA (Lesakako bertso eskola) • Doinua: O baserritxo!

Irailean berriz ere lanera

San Ferminetan pasatakoa
ahantzi egin zen segidan
eguneroko bizitzarekin
sartu egin ginen udan
uda osoa pasatu dugu
lo edo alferkeritan
uda bukatu egin zaigula
nork jartzen ote du dudan?

Eguraldia okertu zaigu
etorri da udazkena
eta honekin ere eskola
ia bukatu da onena
liburuk hartu irakurtzera
ikasketa da aurrena
kurtsoa hasi denak lanera
berritik hasten da dena.

kitan 200 biztanlek parte hartu beharko genuke.

*Uztailak hamabost
eguna bakarra
gogoan hartutzeko
ahalegin beharra.
Herri-afaria ta
suak duen garra
ongi pasatutzeko
aukera edarra
gazte edo zaharra
berdin, Goizutarrak
hurrengo urtean
arrima bizkarra!
gainditu dezagun
utzitako marra.*

Adio,
izar ederra

Ainara MAIA URROZ

Izo Felisa maitea:

Zer moduz egin duzu zeruranzko hegaldi hori? Irribarre triste batekin irribarre argitsu horri agur erraten diot. Agur erraten datzut, izo Felisa, eta mila goraintzi gainerako izarrei, batez ere aita zena, baita izo Juanitari, osaba Tomasi, izo Carmeni, izo Maria Luisari, amatxi Eugeneri eta aita-txi Joxeri ere. Irribarre egiten datzut Lisboan zeunden moja maitagarrie-

nari, sor Margaritari, eta zoriontsu izaten saiatuko naiz familiarekin eta lagunekin irribarre, umoretsu.

Negar aunitz egin dut, baita irribarre egin ere; haserretu egin naiz gehien maite ditudanekin, eta maitemina sentitu dut. Oraindik ere maitemindurik segitzen dut duela ia sei urtetik hona, baina Oiartzungo poeta maitea zoriontsu da lurtean ni gabe, baina nirekin daramat beti, onena nahi baitut beretzat. Bihotza kolpatu dit, eta neure sentimenduekin jolastu, bizitza jolas bat iruditzen zaio-lako. Eta beharbada hala da. Ez dakit.

Oroitzen dut zuk behin Iruñean geundela izo Teresaren etxean galdetu zenidala ea probatu nahi ote nuen moja edo komentu bizitza, eginen zenidatela tokitxo bat Lisboan, mutil-lagunik edo nobiorik ez banuen bederen. Nik ez natzun deus ere arropostu duela bortsurte, isilik gelditu nintzen. Barkatu.

Sei urte hauetan gauza aunitz gertatu zaizkit, Senpereko udaren azken batez, lamien urruneko kantuz, irribarre samur

batez, oharkabean sakon maitemindu nintzelako behin. Horregatik ez nion zure proposamen horri erantzun, eta ez natzun erran bakarrik egon arren, nobiorik gabe, maitemindurik nengoela. Nehoriz ez nion deus ere erran.

Denboraldi labur batez, bereziki eta betiko asko maite dudan pertsona horrekin munduko emakumerik zoriontsuena sentitu izan naiz, baita zorigaitzokoena ere, azken lau urteok oso gorabeheratsuak izan baitira ene bihotz urratuarentzat. Baina naizena eta ni adiskidetzeko balio izan dit, eta elkar ezagutzen eta maitatzen ikasi dut.

Maite zintudan, eta maite zaitut, nahi eta azken boladan neurekin hutsa izan eta neure barrura begira egoteagatik ez natzun telefonatu eta galdetu zer moduz ote zinen, nire ahotsa entzun zenezan gutxienez. Sentitzen dut. Baina aspaldi ohartu naiz deus ere ez gaudela mundu honetan betiko, eta heriotza bizitzaren zati banaezina da, jaiotza bezalaxe. Zure joan biluztu nau, berriro biluzik nago munduan.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Orain minez nago zeru horretara zure irribareari so, amabirjin egunaren biharamunetan, eta zure maitasuna oroitzen dut. Badakit ez zinela perfektua izan, inor ere ez da perfektua, baina bikaina zinen, paregabea, eta zure hutsa sentitzen dut. Orain zu maitatzen segitu nahi dut zu nire ondoan izan gabe ere. Nire maitasuna hazi eta on dadin nahi dut. Lagunduko al didazu, ene izar maitete, ene izar argitsu? Esker mila aunitz denagatik!

Euskaraz idatzi datzut azken eskutitz hau, dakidan arren, Amaiurko zure euskara ia ahantzi zitzaizula, munduan barrena ibili ondoren, baina erraten datzut ez adiorik, eta *ongi bici!*

Eguna, argia irabazi dugu

Leitzako independistak

Abuztuaren 4ko arratsaldean, egun argiz eta ageri-agerian, Leitzako kaleak pestetarako girozko asmoarekin, inde-

pendentistak sarearen kartelxo batzuk jarri genituen. Ozen izkiriatuta: INDEPENDENTZIA, izar txo berdea, eta sinadura moduan, letra txikiagoz: Independentistak.

Duela gutxi, Olentze-roak gauean desagertzen ziren modu bertsuan, guk jarritako kartelxoak ere gauaren ilunpean desagertu ziren. Kendu zituenak lotsa edukiko balu bezala. Apustu guztiak, momio handiarekin faborito bakar baten alde badaude ere; ez dakigu nor kendu zituen. Gauaren ilunak babestuta kartelak kentzen aritu zena edo zirenak ez dakigu armatuta zihoazen ala ez. Demagun armatuta zihoazela, nosotroslodemokratasentzat terrorismo ekin-tza litzateke? Armatuta ala armarik gabe, argi dagoena ekin-tza ez demokratiko eta faxista bat gehiago dela. Ez da denbora asko, jite horretako iragarkiak gauaz jarri eta egunaz kentzen ziren. Beraz, eguna, argia irabazi dugu. Bada zerbait, lana ongi egiten ari garenen erakusle.

11 galdera labur

Zure ustez zergatik dute Sarako bestek horrelako fama?

Udako burrunbatik atera eta, gure artean berritz elkartzen gara giro herrikoian.

Aurtengoan zein izanen da zure egitaraua?

Familiarekin eta lagunekin egunaz gozatzea: aperitifa, bazkari eta musika entzutea, ahantzi gabe presoen aldeko elgarretaratzean parte hartzea.

Gaueko mundua ongiezagutu duzu, nola ikusten duzu bilakaera?

Ez dut bilakaera txarririk ikusten eta konfidantza osoa daukat heldu diren belaunaldietan.

Sara herri euskalduna ote da?

Bai, alabaina ez dugu iraganari begira egon behar. Euskara gero eta eremu gehiago galtzen ari da. Guri dagokigu egoera hau berrizultzea.

Olhain ikastolaren sortzaileetariko bat izan zinen. Nola ikusten duzu gaurko egoera?

Poz handiarekin. Kopuru ttipi-

ttipi batetik hasi baginen lekua bete bete hartu du herrian.

Axular ala Elizanburu?

Elizanburu niregandik hurbilago sentitzen baitut.

Kantari bat?

Patxi Saez, Mikel Urdangarin eta Bruce Springsteen hagitz maite ditut.

Zer afizio duzu?

Mahastiko lana eta arnoa egitea noski.

Bisitatu duzun tokirik gogokoa?

Ipar Tailandian Karen populuaren eskualdean Sarako bi lagunekin eginiko bidai bat heldu zait gogorra.

Sarako xoko kuttuna?

Bat erraitekotan Atxuria.

EH Bai abertzale koalizioaren buru izan zira. Nola ikusten duzu Euskal Herriko egoera politikoa gaur egun?

Bidea zaila izan arren, azken emaitzek itxaropentsu uzten naute. Estatu zapaltzaileek ez dute lortu gure herria isilaraztera, orain, bake bidean, urratsak eman ditzatela.



Michel GUERENDIAN → Saratarra

PSIKOBIDE PSIKOLOGIA ZENTRUA

TERAPIAK: Bakarkakoa - Bikote artekoa - Familiarra
HELDUAK - HAURRAK - NERABEAK:

Era guztietako arazoak eta gaixotasunak tratatzen ditugu
IKASKETA TEKNIKAK eskolan arazoak dituzten haurrentzat
GURASOENTZAKO LAGUNTZA TALDEAK: Talde terapiak

Lehenengo kontsulta dohainik, deitu eta informa zaituz!!

Kolon Pasealekua, 64 behea • 20301 - IRUN
Tel. 689 639 543 • www.psikobide.com



GIZARTEA

ARKUPEAK → IRAILEAN ETA URRIAN

Lezo, Madril, Benidorm, Lodosa eta Lizarra bisitatuko ditu Arkupeak-ek

Aste honetan Arantzazun eta Loiolan izan dira

TTIPI-TTAPA

Hilabete mugituak izanen dira iraila eta urria Arkupeak Elkarteko bazkideentzat. Asteazken honetan Arantzazura eta Loiolara egitekoa zuten irteeraren ondotik, hilaren 14an, Gurutze Sainduaren Egunean Lezora joanen dira. Goizean meza entzun ondotik, kirol jaialdia izanen dute eta ondotik, Hondarribian bazkalduko dute. Dantzaldia ere izanen dute eta 20:00etan hartuko dute etxerako bidea.

Ondotik eginen dute bidaia Madril aldera joateko izanen da. Irailaren 16tik 23ra eginen dute egonaldia eta Madril ez ezik, inguruak ezagutzeko aukera izanen dute.

Irailaren 29tik urriaren 13ra, berriz, Benidormera joateko irteera antolatu dute.

Aurreikusia duten hurrengo irteera Lodosa eta Lizarrara da. Kontserbak

bisitatutakoan bazkaldu eginen dute.

ZUZENDARITZA BERRIA

Uztailaren 1az geroztik, Pedro Bañares doneztebarra da Arkupeak elkarteko lehendakari be-

ria. Berekin batera, hauek dira zuzendaritza batzordea osatzen dutenak: Ezkurrako Fernando Etxeberria lehendakariordea, M^a Isabel Mitxeltoarena doneztebarra idazkaria, Joxe Oronoz

iruritarra diruzaina eta bokalak: Juana M^a Bertiz (Donamaria), Pakita Mikelarena (Legasa), Gemma Gamio (Doneztebe), Jose M^a Irazoki (Bera) eta Jose Luis Legarra (Doneztebe).



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Aitaxi-amatxien Eguna ospatu dute Aralarren

Uztailaren 26an, San Joakin eta Santa Ana egunean, aitaxi-amatxien eguna ospatu zuen Arkupeak elkarteak Aralarako San Migel santutegian, ia 300 bazkide bilduz. Mezaren ondotik, Arkupeak elkartearen batzorde berriko kide den Fernando Etxeberria hartu zuen hitza eta, bertzeak bertze, Nafarroako Kutzaren Zuk Aukeratu, zuckerabaki proiektuan elkarteak aurkeztu duen 10.861 zenbakiari laguntzeko eskatu zuen. Aralarako ostatuan bazkaldu ondotik, zorionak kantatu zizkieten 72 urte bete zituen Sunbillako Eugenio Arretxeari eta 69 urte bete zituen Maria Dolores Eskudero goizuetarrari. Bazkalondoa Joxe Anjelen musikarekin girotu zen. 19:00 aldera abiatu ziren bueltan eta elkartetik eskerrak eman nahi izan dizkiete autobus gidariei, emandako tratuagatik eta erakutsitako profesionaltasunagatik.

GOBERNUA

Abeltzainen inbertsioen zorrak ordaintzeko dirulaguntzak emanen dira

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 300.000 euro emanen ditu abeltzainen ustategietako inbertsioen zorrak ordaintzeko dirulaguntza gisa. Hartuko diren neurrien artean dago kredituak lortzeko behar den bermea ordaintzeko dirulaguntza. Eskatutako bermearen %1,5erainokoa izan daiteke. Horrez gain, bi urtetan interesen hiru puntu finantzatuko ditu. Hau da, abeltzain bati %4ko interesa duen kreditu bat ematen badiote, lehen bi urteetan interesen %1a soilik ordaindu beharko du, gainerako Nafarroako Gobernuak hartuko baitu bere gain. Laguntza hauek Nafarroako Gobernuak abeltzainen sektoreko krisiari aurre egiteko jarri ditu martxan. Zereal eta pentsuen prezioaren igoera handia izan da eta ekoizpen kostu-ere goiti egin dute.

2011-12 ikasturtea IRUNEN

INGELESA eta FRANTSESA

- Haur, gazte eta helduentzat
- Asteazken behin edo bi egunetan
- Cambridge-eko azterketen prestaketa
- Enpresentzako ikastaroak

LACUNZA

Irunen Iulio Mariño plazan
 902 012 912 • www.lacunza.es

KIROLA → AGERRA MENDI TALDEAK ANTOLATUA

Hamargarren Mendi Itzulia irailaren 18an izanen da

32 kilometroko ibilbidea prestatu dute

TTIPI-TTAPA

Irailaren 18an egingen da X. Mendi itzulia eta inguruko mendietan barrena 32 kilometroko ibilbide polita antolatu du Agerra Mendi Taldeak. Agerra auzoan izanen du irteera 07:00etatik 08:00etara eta parte hartzaileek Zigorriagarako bidea hartuko dute. Ondotik Manttale pasatu eta lardinera iritsiko dira, eta Erentzun aldera egingen dute gero.

Landagaitako lepora ailegatu aitzinetik Usategietatik pasako dira. Landagaitako lepotik joanda mendizaleek zapalduko duten hurrengo tontorra Larun izanen da. Horratz iristeko Zizkuitzetik pasatu beharko dute. Labiaga izanen da hu-

rrengo gaina Lizuniaga pasatu ondotik. Hemen bi aukera egonen dira: Labiaga igo edo igo gabeko tontorrerako bidea hartu. Larretagaina izanen da azken gaina. Hasierako puntu berean bukatuko da ibilaldia.

Ibilaldian parte hartzeko 10 euro ordaitu beharko dituzte federatu gabeei eta 8 euro federatuei. Izen ematea egunean bertan egin daiteke 06:00-07:00 artean Agerra Mendi Taldearen egoitzan edo nahi izatera aitzinetik Internetez: www.mendizmendi.com.

Ane Bergara Realera

Ane Bergara herriko futbolaria etxetik hurbilago ariko da denboraldi honetan. 24 urteko gaztea Espanyolen ibili da azken sei denboralditan eta emaitza onak ere lortu ditu taldearekin liga berrin eta Erreginaren Kopa

hiru aldiz irabazita. Orain, Realak fitxatu du eta igandean jokatu du denboraldiko lehenbiziko partidua Valentzian.

Abesbatzaren Zilarrezko Ezteiak

Berako Abesbatzak Zilarrezko Ezteiak ospatuko ditu datorren udaberrian eta 25. urteurrenaren ospakizunak prestatzen ari dira. Oraingoz, argazki erakusketa eta CD baten grabaketa iragarri dituzte. Diru kontuak estaltzeko, Nafarroako Kutxaren *Zuk aukeratu, zuk erabaki* kanpainaren barrenean 23.455 proiektua aurkeztu eta babesa eskatu dute.

Txupinazoko gertaerak

Sanestebanetako txupinazoan gertatu zenaren harira, Aralarrek eta Bilduk oharrak kaleratu

dituzte.

Aralarrek «besten hasierako gertaerak eta alkatearen kontrako pintadak gaitzetsi» ditu. «Presoen ikurrak Herriko Etxeko balkoian paratu zituzten Bilduko kideek —dio Aralarrek—, aitzineko osoko bilkuraren ondotik inolako ikurrik ez paratzea adostu zeneran». Hala, «kontsentsua puskatzea eta giroa kaskartzea leporatu dio Aralarrek Bilduri. Sanesteban egunez, alkatearen kontrako pintadak agertu izana ere kritikatu du. «Bigarren aldia da udal talde honen eta bere kideen kontrako pintadak agertzen direna, eta Bilduk isilik segitzen du».

Bilduren arabera, ordea, «gezurra da azkeneko plenoan adostu zenik txupinazo egunean udal txeko balkoian presoen banderolarik ez jartzeari. Pleno horretan Bilduk garbi erraztuen banderola jarriko zuela balkoian». Gaineratu duenez, «beraiek dioten erabaki hori hartu zutenean, ez zegoen Bilduko zinegotzirik». Horrekin batera adierazi dutenez, «UPNko zinegotzia, alkatea eta albintea banderola kendu nahian zalapartaka hasi arte, plazara hurbildutako jendetza lasai zegoen. Aipatutakoa ikusita hasi zen jendea oihera eta txistuka».



Pertsonaia
Antonio VALDERRABANO

‘Bera y el Bajo Bidasoa desde el siglo XIX’ liburua idatzi du

38 urtez herriko medikua izan den Antonio Valderrabano *Bera y el Bajo Bidasoa desde el siglo XIX* izenburupean liburua idatzi du. Lehendik artikuluekin zituen arren, hau da bere lehenbiziko liburua eta uztaile hondarrean aurkeztu zuen jubilatuen elkartean. Orduan kontatu zuenez, liburua 2009-rako prest zuten eta Nafarroako Gobernuari aurkeztu zion argitaratu ahalizateko. Honek, ordea, ez zion dirulaguntzarik eman eta geroztik, egindakoa gehiago lantzen joan da. *Zuk aukeratu, zuk erabaki* kanpainari esker lortu duen diruarekin kaleratu du orain.

Jubiloteka

Jubiloteka zerbitzua eskainiko da irailaren 6tik abenduaren 23ra Beran, astearte eta ortziraletan 10:00etatik 13:00etara. Aurkezpena ortziral honetan, hilak 2, egingen da, Lagun Handiak-en egoitzan, 10:00etan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Berriz ere oroitarria paratu dute Taillon mendian

Duela lau urte Taillon igotzen ari zirela hildako Luis Mari Loro Pikabea, Jabier Zubieta eta Xabi Saralegiren omenez oroitarria jarri zuen mendizale talde batek 2009ko uztailean, leku berean. Norbaitek oroitarri hura bere tokitik atera zuen eta uztailearen 16an, berriz ere hemendik joandako 40 laguneko mendizale talde batek oroitarria bere lekuan paratu zuen. Mendizaleetako batzuek Taillon igo zuten eta bertzeek Gavarnieko zirkoa egin zuten. Beheitirakoan bazkaldu eta etxera bueltatu ziren.

Txirrindularientzako bi proba irailean

Gure Txokoa Elkartek antolatuta, txirrindularientzako bi proba egingen dira hilabete honetan. Irailaren 10ean jubentzako Felix Errandonea Memoriala egingen da, 17:00etan. Bertzetik, hilaren 25ean BTT martxa egingen da, 10:00etan Matzadatik abiatuta. Xehetasunak hurrengo alean.

LESAKA

UDALA → BESTEN BALANTZEA EGIN DU BILDUK

Segurtasun neurri «zorrotzagoak» hartuko dira heldu den urteko sanferminetan

Besta komisioa sortu nahi da, «parte hartzaileagoak» izan daitezzen

Aitor AROTZENA

Aurtengo Sanferminak pasatuta, udalak besten balorazio positiboa egin du. Herrian bizi izan den besta giroa bikaina izan dela erran du Bilduk eta egin dako balorazioa positiboa izan da, orokorrean.

Halere, segurtasun neurriak hobetzearen beharra azpimarratu nahi izan dute, «2.800 biztanleko herri bat izanik, Sanferminetako asteburuan 10.000 biztanleraino iristen gara. Honek eguneroko normaltasuna hautsi egiten du, gehiago kontrolatu beharreko egoerak sortuz, hauen artean segurtasuna eta garbitasuna». Honek duen garrantziaz ohartuta datorren urtera begira neurri zorrotzago eta hobeak aztertuko dituzte.

Udalaren egoera ekonomiko larriak gar-

bitasunean gastuak moztea ekarri du eta argi azaldu dute aurten hartu diren garbitasun neurriak ez direla nahikoak izan, «asteburuan etortzen den jende kopurua ikusita, ez da harrizkoa sortzen den usai txar eta zakar kopurua, eta jarritako garbitasun neurriak ez dira nahikoak izan honi irtenbide egokia emateko». Herritarrei barkamenak eskatu dizkiete izandako «ondorio desatsegin eta zailengatik». Bide batez, herriko txokoak norberaren borondatez garbitzen lagundu duten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkie udalak.

Aipamen berezia egin nahi izan die programa ofizialetik kanpo herrian giroa jarri duten talde desberdinei eta programa ofizialean hainbat ekitaldi aurrera eramateko lanean aritu diren bolondresei ere. Datorren urtera begira, besta komisioa sortu nahi dute «Sanferminetarako ekitaldi hobeak, hurbilagoak eta parte hartzaileagoak sortzeko asmoz».



ARGAZKIA: TELLETXEA

Eskuz binakakoa lehen aldiz antolatu du Arkupe elkarteak

Urkupe pilotazale elkarteak lehen aldiz antolatu duen eskuz binakako pilota txapelketaren finalak jokatu ziren uztailaren 23an, larunbat goizean udal pilotalekuan. Umeen mailan, Azpeitiko Illunpeko Alberdi eta Galarragak 18 eta 10 irabazi zieten Añorgako Oier eta Eñaut Izetaren kontra ariko dira. Kimu mailan, Errekako Iker Salaberria goizuetarrak eta Iraitz Zubizarreta ataundarrak 18 eta 16 irabazi zieten Illunpeko Alberdi eta Egiguren-i. Haurren kategorian, Berako Gure Txokoako Andoni Lazkanotegi eta Iñigo Martinezek 18 eta 4 irabazi zieten Igantziko Biltokiko Oihan Canabal eta Lesakako Arkupeko Julen Palenzuelari. Kadeteetan ikusi zen partidarik orekatuena eta borrokatuena eta azkenean, Biltokiko Unai Telletxea eta Huarteko Joseba Sarasak 22 eta 21 irabazi zieten Uharteko Unai Astiz eta Aritz Goñiri. Gazte mailan, azkenik, Oiarzungo Oiarpeko Xabier Barandiaren eta Ander Imazek 22 eta 18 irabazi zieten Lizarrako San Miguel elkarteko Sanz eta Diaz-i.



UTZITAKO ARGAZKIA

45 neska-mutikok parte hartu dute udalekuetan

Sanferminak bukatu eta lau astez hainbat ekitaldi egin dituzte herriko 45 neska-mutikok, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak Dindaia Fundazioarekin batera antolatutako udalekuetan. Maite Iturria, Eila Altzugarai, Maddi Taberna, Matixa Oteiza eta Ainhoa Ubiria izan ziren monitore. Eguraldia ez zuten lagun izan lehenbiziko asteetan eta igerilekuetara joateko gogoz gelditu ziren, baina tailerrak, eskulanak, antzerkia, erreka garbiketa eta bertze hainbat lan egin zituzten. Eguzkiak azken astean baino ez zuten gozatu ahal izan. 5 urtetik goitikoek bazkaritxo batekin borobildu zuten udalekua.



USATEGIAK → SUBASTA LARUNBATEAN DA

Usategien inguruko hitzarmen berria sinatuko dute igandean Etxalar eta Sarako udalek

Lizaietako zelaian eginen da jendaurreko ekitaldia

Irune eta Itsaso

Etxalarko Usategietara bideratzeko erabiltzen diren bederatzitrepak Sarako herri-lurretan daudelako, adostasuna bilatuz, funtzionamendu orokorra erregulatu nahi izan dute bi herrietako Herriko Etxeek, eta hala, hitzarmen berria sinatuko dute igande honetan, irailak 4, Lizaietako Zelaian, bi herrien artean.

12:00etan hasiko da ekitaldia eta jendaurrean eginen da. Bertzeak bertze, bi herrietako ehiztari eta usazaleen elkarteetako ordezkariak –eskopetarekin zein sareekin ehizatzen dutenak–, Nafarroako Gobernuko Ingurumen De-

partamentuko ardura-dun eta teknikariak eta Akitaniako Prefekturako ordezkariak gonbidatu dira. Sinadura ekitaldian, Battite Laborde eta Miguel Mari Irigoien Sara eta Etxalarko alkateek gai honen inguruko azalpenak ere emanen dituzte.

Hitzarmen berri honek indargabetu eta ordezkatu eginen ditu lehendik bi udalen artean zeuden hitzarmenak, 1959, 1984 eta 1990-ekoak.

Larraburukoek urteroko irteera

Larraburu jubilatutako karteak urteroko abuztuko irteera egin zuen Sendavivara hilaren 19an. 40 lagun inguru joan ziren eta eguraldi beroa izan bazuten ere ongi pasatu zuten eguna bertako ibilbidea eginenez.



ARGAZKIAK: JONE BIZENTE ETA IZARO IRIBARREN

Andremariak giro ederrean pasatu dira

2011ko Andremariak giro ederrean joan dira. Aurtengoan herriko gazteek eman zioten hasiera besteei antxaferoa botaz; hauek baitira herri afaria eta asaua antolatzen dituztenak. Aurtengo ekitaldi arrakastatsuenak herriko dantzarien saioa, gazteen arteko kirol desafioa, eta nola ez, bezperako herri afaria eta Asaua izan dira. Egitaraua osorik bete da eta kontent agertu dira antolatzaileak.



Udaleku irekiak

Aurten ere udaleku irekiak antolatu dira uztailean eta arrakastatsuek izan dira; 24 hurrek parte hartu baitute. Hainbatekin tza egin dituzte Josune Lasa, Jone Bizente, Asier Otxandorena eta Maitane Alzuguren begiraleekin eta Jonek erran duenez, hagitx kontent egon dira.

bixkiak KIROI ETA MODAKO atropa denda

AZOKA DENDAN BERTAN

10:00etatik 19:00etara

irailak 3 larunbata

IRI GABE

DESKONTUAK %50 %60 %70

Arretxea, 7 B2 | LESAKA | 948 638 110

ARANTZA

OSPAKIZUNAK → EGUN OSOKO BESTA

Larunbat honetan Eguzkialdeko besta egingen da

Joaldunak, bazkaria, segalarien desafioa... izanen dira

Nerea ALTZURI

Amabirjin bestak eta Arantza Rock eguna agurtu ondotik, oraindik ere besta gogoz daude herritarrak. Izan ere, Eguzkialdeko bizilagunek auzoko besta antolatu dute larunbat honetarako, irailak 3.

12:00etan altxaferoa botako dute eta ondotik, joaldunen saioa izanen da. 12:30ean herri kirol saioa egingen dute eta gero bazkaria antolatu dute. Arratsaldean, bi segalarien arteko desafioa, musika, pintxoak eta afaria izanen dira. Bazkarirako txartelak herriko ostatueta salgai daude eta nahi due-

na joan daiteke. Ekimenak Anguleroetan egingen dira.

Udal kontuak

Uztailean bi udal batzar egin ziren Herriko Etxean, bertzeak bertze, gai hauek ukituz:

Ainara Maia zinegotziak kargua uzteko idatzi eskaera egin zuen uda aurretik. Uztailaren 1eko plenoan eskaera onartzea eta akordioa Hauteskundeetako Batzordea bidaltzea erabaki zen ordezkoaren kredentziala bidaltzeko eskatuz. Momentuz, ordezkoarik ez da izendatu.

ORDEZKARIEN ARDURAK

Udal plenoak hilabeteko lehendabiziko ortziraletan egingen dira eta alkateak eta zinegotziek dituzten ardurak zehaztu dira.

- Hirigintza, herriko erai-kinak eta zerbitzuak:



ARGAZKIAK: NEREA, AMAIA ETA IGOR

Besta ederrak izan dira aurtengoak ere

Abuztuaren 13an berrikuntza batekin hasi ziren bestak: haur eta helduen krosak izan ziren eta harrera ona izan zuten. Biharamunean, Jaime Iturria alkateak altxaferoa botatu zuen eta herriko dantzari eta musikari emanaldia izan zen. Amabirjin Egunean, meza, prozesioa eta herriko dantzen saioa izan zen. Arratsaldean izaniko pilota partidek ere jendetza bildu zuten. Asteartean, haurren eguna izan zen eta arratsaldean, herriko kantari eta musikari talde batek kantaldia eskaini zuen berrikuntza gisa. Azken egunean, Gregorio eta Beñat Mitxelena aita-eme eskusoinulariak lagun, kantu poteoa eta herri bazkaria egin ziren, azken hau Goiko Karrikan. Arantza Rock egunari buruz balorazio positiboa egin dute Gazte Asanbladakoek.

Jaime Iturria eta Imanol Artola.

- Ekonomia eta Ogasuna: Imanol.
- Turismoa: Koldobike Gorostiza.
- Mendia eta ingurumena: Jose Jabier Mitxelena Ordoki.
- Kultura, bestak eta kirola: Ander Almandoz.

- Auzolanak: Inazio Mardariaga.
- Euskara Batzordea: Jaime Iturria.

Bertzalde, jakina da Bortziritako Euskara Mankomunitatearen presidentea Jaime dela. Gainerakoan, eskualdeko erakundeetan hauek dira arduradunak:

- Hiri Hondakinen eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak: Jaime.
- Bertiz Partzuergo Turistikoa: Koldobike.
- Cederna: Imanol.
- Bortziritako Osasun Kontseilua: Ander.
- Eskola Kontseilua: Koldobike.
- UEMA: Ander.

carnho
guztiak sartuta
1984 Arantza
www.carnho.net

J. RAMOS
zolak akutzilatatu eta
barnizatzen ditut.
Satelekoak: 617 816 071 - LESAKA

BIDASOA
BIDASOA - BIDASOA
BIDASOA - BIDASOA
BIDASOA - BIDASOA
T.F. 859 971 442
BERA

arrapak - erandirik
muntak - muntak
toallak - kortinak
alfubrik
Goya
Bera

ANTZAZELAK
ZINTARRIAK - ADOKINAK - ZOLAK
Tel: 945 611 117 - Fax: 945 611 561
Iturra emak: BERA
www.antzazelak.com
www.antzazelak.com

Antzazela, argeak, oma antzazela, lehoak, asak, arkuak, pianeak,
barniak, erazak, moldurak, zokaloak, hilak, trazarriak

Javier Manterola
Taldeko antzazela
burgintza - gero
kalafaktas
Tfn: 629449902 - BERA

KIROLA → BILTOKI ELKARTEAK ANTOLATUTA

XXI. mendi bizikleta ibilaldia igande honetan egingen da

Helduek hiru ibilbide izanen dituzte aukeran eta haurrek bat

da frontoian eta opariak ere zozketatuko dira.

Udal bilkurak hilabetero ortzegunetan

Ekainaz geroztik lanean ari den udalbatza berriak hilabetero ortzegunetan egingen ditu bilkurak. Hurrengoak irailaren 15ean, urriaren 13an, azaroaren 10ean eta abenduaren 15ean egingen dira.

BATZORDEAK

Arlo bakoitzean izanen diren arduradunak ere zehaztu dira. Hala, **Herri Lan, Hirigintza eta Ingurumeneko** ordezkariak Lourdes Ibarluzea, Imanol Retegi, Anjel Urtxegi, Urtzi Loiarte eta Joxean Ortega izanen dira; **mendi eta mendi bideen** arduradunak Anjel eta Ismael Iturbide izanen dira eta **kultura, eskola, kirolak eta bes-tetakoak** Imanol, Urtzi eta Joxean. **Herri zer-**

TTIPI-TTAPA

Azken urteotan egin bezala, mendi bizikleta ibilaldia antolatu du Biltoki elkarteak igandehonetarako, irailak 4. Aurten goa probaren XXI. edizioa izanen da eta beti bezala, haur nahiz helduek izanen dute ibilteko modua.

Haurren ibilbidea 09:30ean hasiko da eta 10:00etan gainerakoen. Helduek hiru ibilbide izanen dituzte aukeran: 15 kilometrokoa, 21 kilometrokoa eta 26koa.

Izen-ematea egun berean egin beharko da, 08:30etik 09:30era, 10 euro ordainduta. 16 urtetik behetikokoek dohai-rik izanen dute.

Ibilaldiaren ondotik, hamaiketako eskainiko



Iraitz Etxebarria gailendu da Mendi Bizikleta Jautsieran

Aurtengoan lehen aldiz Xabi Telletxea zenaren omenez egin den Mendi Bizikleta Jautsiera uztailaren 23an egin zen. Guzura 62 txirindularik parte hartu zuten Euskadiko Irekirako baliagarria zen proban. Eguerdian, txirindulariek entrenamenduak egin eta gero, omenaldia hunkigarria eskaini zitzaion Frainen Xabi Telletxeari, joan den urteko abenduan hildako kirolariari. Kirol arloan, Iraitz Etxebarria bizkaitarrak egin zituen denborarik onenak bi txandatan. Saikapenean aitzinean ibili zirenek bigarren txandan markak hobetu zituzten. Bereziki Hegoi Ado beratarrek, kasik bortz segundo hobe egin baitzuen bigarren eta horrela, laugarren postutik bigarrena igo zen, bere kategorian ere nagusitzeko. Eskualdeko hainbat txirindulari izan ziren proba honetan. Adorekin batera, Berako Albar Gonzalez (laugarren izan zen junior kategorian), Martxel Arribillaga (bosgarren), Lander Urtxegi (seigarren), Imanol Retegi herritarra (seigarren izan zen elite kategorian) eta Iñaki Esarte baztandarra (laugarren izan zen 30 urtetik goitikoan kategorian).

bitzu eta azpiegituren mantenimenduz Imanol, Urtzi eta M^a Josefa Etxebarria arduratuko dira eta **Ogasuna, gastu kontrola eta aurrekontuez** Lourdes alkatea, M^a Josefa eta Joxean.

Erakundeetako ordezkariak ere izendatu dituzte eta Bortzirietako **Hiri Hondakinen Mankomunitateko** ardura-

duna Joxean izanen da eta ordezkoa M^a Josefa; **Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateaz** Ismael arduratuko da edo bere ordezkia M^a Josefa. **Euskara Mankomunitateko** ardura Lourdesek hartu du beragain eta **Osasun Kontseilua**rena M^a Josefak. **Bertizko Partzuergo Turistikoan** arduraduna Isma-

el izanen da bere ordezkia Lourdes. **Cederna Garalurren** Anjel ariko da eta **udalen harremanetako taldea** Joxeane kudeatuko du edo bere ordezkia alkateak. **Eskola Kontseiluaz** M^a Josefa arduratuko da.

Alkateordeak ere erabakiak dira. Lehen ordezkia Imanol izanen da eta bigarrena M^a Josefa.

ANSONEA *serena*

Eguzki menua
Menu begetarianoa
Menu makrobiotikoa
Plater konbinatuak
Bokatak • Errezinak

948 630 1122

F. LANCHAS

Akzioak eta herriztatzea
Parkes eta parket flutatzaldea
Jartzea
Mota gutxieta kolea

Tel: 948 630 755 - M: 607 406 781

XITELI

948 630 1122

ZUBIONDO
Jatetxea

Agardulagia jatetxea

Alata Karrika
BERA NAHARRA

LABEZAR

Tel: 948 631 076 - BERA

BRANDONEA, S.L.

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 • atea 21-22 • 31780 BERA

SUNBILLA

BESTAK → JOAN DIRA SANTIBURTZIOAK

Eguraldi eta giro ederrarekin joan dira Santiburtzio bestak

Laguntza eman dutenei eskertu nahi die Ulibeltzak Elkarteak

Maidar PETRIRENA

Eguraldi onarekin hagitx ongi joan dira aurtengo bestak. Ekitaldi andana izan da, baina guztien artean badira aipamen merezi dutenak.

Abuztuaren 11n egin zen Ramon Latasa Saria eta hiru mailetako aizkolariak bildu ziren: helduetan Arrospe eta Lopez izan ziren irabazle; gazteetan Oihan Laretxeak eta Arkaitz Olanok lortu zuten txapela eta gaztetxoetan lehen aldia zuten gure herrian parte hartzen zutela Iker Vicente izan zen garaila. Egun berean, Meza Nagusia eta gero, herriko dantzariak eta erraldoiek emanaldi polita eskaini zuten jendearan gozamerako.

Aurtengo bestetako berrikuntza abuztuaren 13ko espuma besta izan zen, eta hagitx arrakatsua eta polita atera zen. Egun horretan egin zen peñen bazkaria ere eta giro ederrean joan zen, herrian barna ura eskatuz, Jaiak txaranga alaiturik ibili ziren.

Eta lerro hauen bidez, Ulibeltzak Elkarteak eskerrak eman nahi izan dizkie laguntza eman eta lagundu dutenei: Maria Jesus Harategia, Lizun Gaztandegia, Oreberri Okindegia, Udala, Marisol denda, Maribel denda, Amaia Ileapaindegia, Ariztigail Kanpina, Iturburu Ostata, Espelosin Eraikuntzak, Gazmendi Eraikuntzak, Sasoi Eskabazioak, Ruiz denda, Zaldua, Kontxa Gasolindegia, Renault eta Apeztegia Berria.

Iker Marizkurrena arraunean

Azken bi urteotan Hondarribia taldeko



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Giro ederrean joan dira aurtengo Santiburtzioak ere.



ARGAZKIA: MAXUX MUTUBERRIA

Gure dantzariak heritik kanpo ere erakustaldiak eskaintzen

Santiburtzio bestak akitzean zirela, abuztuaren 14an eta 15ean irteerak egin zituzten Arraizko -argazkian- eta Zugarramurdiko bestetara.

arraunlaria dugu Iker Marizkurrena. Txapelketa

nagusietan parte hartzen ari den honetan, zorio-

nak eman nahi dizkiogu, eta segi dezala horrela.

ERROTASAR
harategia
Errotasari kooperatiba
Eztopera, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 058

USOA
Nekazari kooperatiba
Bertan egindako perisuaik, bertze markak eta ekologikoak
Organikak - Burdin txanak
Injektzioak - Edanak - Harakak
Botiak (mezuzitatekin)
Etxez ebeko banaketa egiten da
Kafelakzioa eta ibigailuendako gasolioa
Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 + ETXALAR

ERREKALDE
Plazza...
Guztialde...
Tel/Faxa: 948 630 259 BERA

ZOANSA
MARKA GUZTIAK KONPONKETA
Berasua, 2 - Alkiza Industrialdea
LESKA (sarean Bera) (sarean Bera)
Tel: 948 625 535 - Faxa: 948 625 505

UDALA → LAN DEIALDIA EGIN ONDOTIK

Hondakinen transferentzia planta egiteko proiektua onartu du Gobernuak

Aurkeztutako lau alegazioak atzera bota ditu

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernu-ko Toki Administrazio Departamentuak behin betiko onarpena eman dio Baztan, Bertizarana, Bortziriak eta Malerreka-ko hondakinek hartuko dituen transferentzia planta Donezteben erakitze-ko proiektuari. Horretarako, proiektuaren aurka aurkeztutako lau alegazioak bertan behera utzi ditu. Udala, egurrekin lanean aritzen den herriko enpresa bat eta bi partikular izan ziren alegazioak aurkeztu zituztenak, baina Toki Administrazio Departamentuak ez ditu onartu.

Oteiza auzoan eraikiko da hondakinen tratamenterako transferentzia planta, 22,3 milioi euroko inbertsioa eginez. 2012rako martxan ego- tea aurreikusia dago.

Haur eskolako langile berriak

0-3 urte bitartekoena den Askin Haur Eskolan abudo hasiko dira langile berriak lanean. Guztira 87 lagunek eman zuten izena jantokiko laguntzaile, garbitzaile, sukaldari edo hezitzaile gisa lanean aritzeko eta dagozkien azterketak

gainditu ondotik, sei hauek izan dira aukeratuak. Jantokiko laguntzailea M^a Izaskun Garmendia izanen da; garbitzailea M^a Carmen Ganboa; sukaldaria Lourdes Mitxelena eta hiru hezitzaileak Maite Urreaga, Monika Etxeberria eta Oihana Elizalde.

Es kubaloia

Errekako talde seniorra aste honetan hasteko auzen entrenamenduetan. Berritasun handiena aulkian izanen da, Patxiku Ganboa entrenatzaile postura itzuli baita, Dani Urrozen hutsunea betez. Laguntzaile Luismi Apezetxea eta Felipe Ganboa izanen ditu. Gainerakoan, joan den denboraldiko oinarria izanen du taldeak eta Erreka Bn aritu ziren zenbait gazte ere lehen taldean jokatuko dute. Gainera, aurreko denboraldian Lehen Maila Nazionalen aritu ziren Pascual Bertiz (Anaitasuna), Ibai Marizkurrena eta Javi del Villar (Beti Onak) talde- ra itzuli dira.

Bertzalde, aurrendenboraldiaren barne, Lehen Maila Nazionalen Anaitasuna taldea Donezteben egonen da hilaren 9tik 11ra. Aterpean lo egingen dute eta kiroldegian entrenatu. Irailaren 10ean lagunarteko partida jokatuko dute Errekaren aurka.



ARGAZKIA: JOKIN APEZETXEA

Donibane Lohizuneren aurka txapeldun

Urtero bezala, abuztuaren 19an Laxoa partida jokatuko zuten eskualdeko kirolariek Ziburun, Donibane Lohizuneko taldearen kontra. Malerreka eta Baztan aldetik Jokin Apezetxea, Jabier Almandoz, Jokin Arraztoa, Iñaki Etxandi eta Aritz Alundak jokatuko zuten eta bi orduko partidaren ondotik, 9-8 irabazi zuten.



ARGAZKIA: ERREKA

Kirol Eskola arrakastatsua

Aurten 40 haurrek parte hartu dute Erreka Kirol Elkarteak antolatutako Udako Kirol Eskolan. Eta arrakasta ikusirik hiru talde egin dituzte bi egin ordez –argazkian ttikiaren taldea–. Balorazioa «hagitz ona» izan da Errekaren arabera.



ARGAZKIA: ERREKA

Uztailean Pirinioetan

Uztail eurtsua izan da aurtengoa, eta erran dutenez, 1960az geroztik euri gehien egin duena. Hilabete hondarra, ordea, eguraldi ederrarekin akitu zen eta aukera hori ez zuten alferrik galdu Erreka elkarteko mendizaleek. Haur, gazte, ez hain gazte, emakumezko, gizon... 35 laguneko kuadrilla animatu zen Pantikosako balneariora eta 2.756 metroko garaiera duen Bacias tontorrera joateko.

ZUBIETA

FESTAK → GUTXIAGO GELDITZEN DA 2012KOETARAKO

Festa partehartzaileak izan dira aurtengo Amabirjinak

Joaldunak herritik kanpo ezagutarazi zituztenak omendu dira

Fermin ETXEKOLONEA

Aurtengo Amabirjinetatik zerbait nabarmen-tzekotan, beharbada, jendearen parte-hartzea izan daiteke, eta bereziki herriko jendearena. Antolatutako ekitaldietan erantzun ona eman baitute herritarrek.

Hortaz aparte, egitarautik kanpo ere izan dira gauzak, eta eskertzea da jendearen borondatea. Horren adibide da Petriseneko hiru anaiek Haurren Egunean egindakoa: suzko zezenarekin, toreroa eta asto gainean pikatzailea han ateraziren.

Nabarmentzekoa da, arbola altxatzea eta botatzea bereziak izan di-

rela aurtan. Lehengo estilo zaharrea lekutu zen plazatik: arpanekin eta gisako tresnekin botatzuten, eta autoz edo traktorez eraman beharrean, ekarri bezala, bizkarrean hartuta lekutu zuten.

Amabirjin Egunean, Meza Nagusiaren ondotik, duela 40 urte herritik kanpora ateratzen hasi ziren joaldunak izan ziren protagonistak. 1971-ean Erreteriko Madalenetara joan zirenak eta urte berean, festetan meza ondotik joaldunen desfilea egiten hasi zirenak omendu ziren.

Haurren Egunean, Guraso Elkartek *Eskola ttikieta* hezkuntza duinta eskatuz egindako boletoen zozketa egin zen. Lehenengo saria (589 zenbakia) Eurne Santesteban herritarrentzat izan zen; Altxunea erretegiaren bi lagunendako afaria irabazi zuen. Bigarren saria (345) Oihana Mindegia aurtiztarrak



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Giro ederrean dira aurtan ere festak.

eraman zuen, etxeko produktuen saskia. Lerro hauen bidez, gurasoek eskerrak eman nahi izan dizkie jendeari.

Gainerakoan, asteak joan eta etorri, entsaioetan ibili ondotik, festetako azken egunean gure dantzariak eskainitako emanaldia ere polita izan zen.

Joakin Santesteban

86 urterekin abuztuaren 22an hil zen Joakin Santesteban Indakotxea. Lerro hauen bidez, familiari doluminak.



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Herriko aizkolariak

Euskal Herriko III. Mailako Aizkolari Txapelketako fina jokatu du Joxeantonio Loiarrek. Abuztuaren 17an izan zuen kanporaketa Azkoitian (Gipuzkoa) eta 50 urterekin sasoi betean dagoela erakutsi zuen, finalerako txartela lortuz. Bestetik, Patxi Mindegia zituen bi erronketatik bakarra erdietsi zuen abuztuaren 21ean Erron. Alde batetik, kanaerdiko batekin Guinness errekorra ondu nahi izan zuen. Lehendik zegoen marka minutu bat eta 28 segundotan zegoen ezarria eta Mindegia bi segundotan hobetu zuen. Bigarren ahalegina 45 ontzako enbor batekin Europako marka hobetzea zen. Horretarako, 19 segundo eta 50 ehunen baino azkarrago moztu behar zuen, baina ez zuen lortu, 21 segundo behar izan baitzuten.





**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prestatu**

Kalea: 10 - Barria, 8 - 23. poliole - LESAKA - Tfno: 948 631 536 - Fax: 948 631 600

HIRIGINTZA → INGURUMEN ERAGINAREN DEKLARAZIOA JASO ONDOTIK

Gobernuaren behin betiko onarpenaren zain dago Udalaren Hirigintza Plana

Ingurumen Eraginaren Deklarazioa jaso du Gobernutik

TTIPI-TTAPA

Azken urte hauetan Hirigintza Plan berriarekin ibili da lanean Udala. Horretarako hasierako azterketa ere egin zuen eta orain, lau urte pasatu direnean, indarrean sartzeko prozesuak aitzinera segitzen du.

Maiatzean behin behineko onarpena eman zitzaion eta joan den abuztuaren Ingurumen Eraginaren Deklarazioa ere hartu zuen, Nafarroako Gobernuak Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gobernuaren onarpena behar du Udalak Hirigintza Plana behin betiko indarrean sartzeko.

emana. Behin betiko onartua izateko Lurraldearen Antolaketa eta Etxebizitza Departamentuaren baietza behar du, eta hori da orain falta zaiona.

Behin onartuta, Hirigintza Planak ekarriko

duen aldaketa nagusia lurzoru urbanizaezinetan etxebizitzak eraikitzeak izanen da. Izan ere, orain arte lurzoru urbanizaezinetan etxebizitza eraikitzeko 1.500 metro koadro eskatzen ziren, baina Hi-

rigintza Plan hau onartuz gero, 10.000 metro koadroko eremua eskatuko dira, zonalde gutti batzuetan izan ezik. Eta horrekin batera, lehendabiziko etxebizitza izatea eskatuko da, alegia, hori bitztea ezinbertze-

DATUA

10.000

METRO KOADRO eskatuko dira lurzoru urbanizaezinetan etxebizitza eraikitzeko, beti ere, Hirigintza Plan berria onartzen denean.

koa izanen da.

Bertzalde, etorkizunean saihesbide bat egiteko aukera ere aztertu da aipatu planean. Noizbait egiten bada, Nafarroako Gobernuak izanen da nondik egin erabakiko duena baina planean landatik goiti, mendien kontra egitea proposatu da.

BEINTZA-LABAIEN

BESTAK → JOAN DIRA AURTENGOAK

Giro ederrean joan dira bost eguneko bestak

Kantu zaharrak abestuz egin da herri bazkaria aurten

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 5eko ilunabarrean Labaienen bostako altxaferoarekin hasi ziren bestak. Hortik aurrera adin eta gustu guz-

tietako jendearendako ekitaldiak izan ziren: sekula hutsik egiten ez duten aizkora apustuak ia egunero, dantzaldiak, haurrentako jolasak, tortilla eta postre lehiaketa, plater tiroketa, herri kirolletan Larrea (82 urte) eta Iruntxiberri (73 urte)... Azken egunean, kantu zaharrekin girotutako herri bazkaria egin zen



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE

Bestetako irudi batzuk: txistulariak, idi proba eta herri bazkaria.

URROZ

GIZARTEA → ARGITARATU ETA ERAKUSKETA EGITEKO

Argazki zaharren bilduma osatzeko bilketa egiten ari dira herritar batzuk

Argazki mordoska bildu da orain arte baina badago oraindik ere uzteko aukera

la etxeen erdiak ere argazkiak eman dituztenak, baina hala ere, argazki mordoska bildu da. Oraindik ere badu astia herriko jende eta bazterren irudiak eman nahi dituenak.

Usategien enkantean inor ere ez

Aurten tokatzen zen ehiza postuen enkantea egitea, baina joan den abuztuaren 13an egin zen deialdira ez zen inor ere agertu. Laister berriz eginen da bertze enkantea, prezioa jeitsiz, eta interesa duenak badu astirik.

Bistan da ehizaren kontua beheraka doaie-



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Besta otorduak udan

Uztailaren 23an egin zen Herriko Ostatuan, Guillermo Seguiolaren eskutik, txistez hornitutako afaria. Lehenbiziko janariz ase eta gero, irriz ere bai. Noski, batzuk bertzeak baino irri gehigo eginen zuten, eta hainbatek txiste ezagunak bazirela bazion ere, kontalariak nahiko gatza paratu zien irria ateratzeko. Herriko trikitilariak ere aritu ziren Guillermod atsedena hartzen zuen tartetan giro-ri eusten. Bertzalde, azkeneko urtetan bezala, 50 lagun inguru elkartu zen, gehien bat gazteak, Leurtzako urtegi bazterrean bazkaltzeko. Eguraldiak ere lagundu zuen, ilunabarrerako langarra hasi bazuen ere, guttinez bazkaltzeko ateria egon baitzen.

la diru iturri bezala. Garai batean laguntza haun-

dia zen herriko kontuendako. Gauregun, ordea,

bertze diru iturriak bilatzen hasi beharko da.

TTIPI-TTAPA

Argazki zaharrak ikustea jende gehienarentzat atsegina delakoz, herritar batzuk bilduma bat egiteari ekin diote, ondare hori gorde eta publiko egiteko asmoz. Horretarako, argazkiak bildu, digitalizatu eta CDetan argitaratu nahi dira, eta erakusketa egiteko asmoa ere badago. Erran behar da, ez dire-



Ikasturte Berria 2011 - 2012



AXULAR
Fotokopiak, lana, erreprodukzioak, plastifikazioak, esozkariak, prentsa, tabakoak eta beste ibarriak sartzen diren erakundeak


Santiago, 26 • ELIZONDO • T. 948 581 507

ELKAR
liburudenda

- Testu liburuak
- Eskolako materiala
- Aldizkariak eta prentsa
- Fax zerbitzua eta fotokopiak

Eztegara, 18 • T. 948 630 691 • BERA

Ikasturte Berrria 2011 - 2012



Angie
ENGLISH ACADEMY

2011-2012 ikasturteko matriculazio opea zabalik. plaza mugatuak

IKASTURTE HASIERA: irailak 19

University of Cambridge azterketara aurkezteko prestatuakuntza

Itzupen irak egun ira - Eskola laguntza

AURTEN OSATZEN DITUGU 20 URTE MAILERREKAN

Elizagibek 7. behea - 31740 DONEZTEBE
T. 626 206 078 | angieacademy@gmail.com

LEGARRA

- ESKOLAKO MATERIALA ETA TESTU LIBURUAK ENKARGUZ
- FOTOKOPIAK KOLORETAN A3 eta A4
- USB-ik ZUZENEAN INPRIMATZEN DUGU

T/F. 948 63 70 30 · Albistur, 9 · LESAKA

FOTOKOPIA
Alten beko onak eta mota digital berrak

- Inprimaketak, zuri beltzean eta kolorean (zabalgokiak, prezioa zehazki, biko teknika...)
- Piztzen inprimaketak eskaintzen ditugu, formatu handietan eta multzoak egiteko
- Zatiak inprimaketak

Eraberritzea
tasarik gabe

Plaza berria, 4 - 4011
Tel. 948 6320 11
lesaka@urdi.es

TOKI-ONA KIROLDEGIA

2011-2012 kirol jardueren programa. Aurreratu sarezi

Laster eskuorria zuen etxean!

Informazioa: 948 630 215
bera@urdi.es

LESAKAKO KIROLDEGIA

2011-2012 kirol jardueren programa. Aurreratu sarezi

Laster eskuorria zuen etxean!

Informazioa: 948 630 400
lesaka@urdi.es

Dasya Yoga Lesakan

- **Hilabeterako yoga:** 10 orduko katea (zuzen, errepikatua) 2000eur, 3000eur, 4000eur eta 5000eur bitarteko. www.dasya.com informazioa. info@dasya.com
- **Haurrentzako Yoga:** 45 orduko katea (zuzen, errepikatua) 2000eur, 3000eur, 4000eur eta 5000eur bitarteko. www.dasya.com informazioa. info@dasya.com
- **Emakumeentzako Yoga:** 10 orduko katea (zuzen, errepikatua) 2000eur, 3000eur, 4000eur eta 5000eur bitarteko. www.dasya.com informazioa. info@dasya.com
- **Errehabilitazio Yoga:** 10 orduko katea (zuzen, errepikatua) 2000eur, 3000eur, 4000eur eta 5000eur bitarteko. www.dasya.com informazioa. info@dasya.com
- **Yoga eta Danza/Errehabilitazio Yoga:** 10 orduko katea (zuzen, errepikatua) 2000eur, 3000eur, 4000eur eta 5000eur bitarteko. www.dasya.com informazioa. info@dasya.com

ORDUTEGI DESBERDINAK ESKAINIKO DIA
IKASTURTEAN ZEHAR TAILER ETA IKASTARO DESBERDINAK
INFORMAZIO GEHIAGO: 691 025 855 | Begoña Alzugaray | centradasya@gmail.com
Koskontako bidea, 3 beheko | LESAKA

NARBARTE

BESTAK → AKITU DIRA SAN FELIPEAK

Beroak ere ez ditu galdu nahi izan aurtengo bestak

Kuadrila ederra ibili da aurtengo etxez etxe eskean

TTIPI-TTAPA

Aurtengo pasatu dira San Felipeak, bero ederrarekin baina giro ezin hobean. Izan diren ekitaldi guztien artean, aipatzekoak dira, herri-

an eskean ibili diren gazte kuadrila eta horrekin batera, igandeko herri kirolak. Izan ere, egin zuen bero ikaragarriarekin meritu ederra izan zuten kirola egitera ateratzeko. Partxis lehiaketa ere kontuan hartzeko modukoa da, urteak pasatu arren, jendeak gogo haundiarekin hartzen baitu joko hau.



UTZITAKO ARGAZKIA

Tomate ederrak bildu dituzte

Tomate ederrak bildu dituzte uda honetan Jabier Arretxearen baratzean. Horietako batek kasik bi kilo ditu (1,950 kilo) eta bertzeak kilo eta erdi.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ezkerreko argazkia gazteak herrian eskean ibili zirenekoa da. Eskuineko argazkian, berriz, neska-mutikoak ageri dira aulki-dantzan.

616 513 497

GARRAIOAK, ESKABAZIOAK, KONTENEDOREEN ZERBITZUAK

ESKABAZIOAK

Kontenedoreak: 5m³ - 7m³ - 12m³ - 30m³

Mota guztietako hondakinak biltzen dira

Tel/Fax: 948 45 13 89
C/ Amezitia, 1 - 31740 Donostia (Nafarroa)

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Etberitasun eta jubilazio espedientiak
- Bidegaitasun planak eta sumentuak

artekari@artekari.com

ISSAKA: Siltzio, 77. behe - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BURLEATA: La Yifo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

UDALA → BATZARRA

50 lagunek parte hartu dute Bilduk egindako batzar informatiboan

Presazko gaiak, hirigintza, proiektu industrialak eta udal kontuak izan dira hizpide

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 22an batzar informatiboa egin zuen Bilduk udaletxean, eta deialdiari erantzunez, 50 lagun bertaratu ziren. Hainbat gai jorratu ziren:

PRESAZKO ARAZOAK

Narbarteko familia konfliktiboa izan zen aipatutako gaietako bat. Antza, Udalak familiaren etxea erosteko erabakia hartua du eta familia Fiterora joatekoa da, baina hango etxebizitzan arazoak direla eta, Narbarten segitzen dute.

Legasako argindar posteaz ere aritu ziren, segurtasun distantziak ez dituela betetzen azaldu zen, eta Itturaldea atzetik airetik eramatea lortu dela azaldu zuen Bilduk, 30.000 eurotan.

PROIEKTU INDUSTRIALAK

Arcelor Mittali buruz, ahalden neurrian proiektu berri guztiak bertan kokatzearen alde egin zuen Bilduk. Udalaren dilur-eremuaz, berriz, udal berriak proiektua ez du bideragarria ikusten.

Prefabrikatuen proiektuaz, Martikorekin hitz egin ondotik, gaur egun ez duela deus egi-

teko asmorik erran omen du, soilik lurra birkalifikatu nahi duela. Baina Bilduren apustua, «asmo garbiak izan arte, ez birkalifikatzea da».

Bostargiren proiektuan, bi jatetxe, hotela eta nabe industrial andana egin nahi dira, eta Bilduk bi jatetxeak eta hotela egitea azter daitezkeela dioen arren, «hainbertze nabe helburu zehatzik gabe egitea ez dugu ongi ikusten» erran zuen. Depuradoraren proiektuaren inguruan, Arceloren industriagunean kokatzea proposatu zuen.

HIRIGINTZA

Oierregiko apartamentuak ere hizpide izan ziren eta hasierako asmoa apartamentu turistikoak egitea bazen ere, promotoreak etxebizitzak bilakatzeko baimena eskatu duela jakinarazi zen.

Legasako Arozkenean, 39 bizitza egin nahi omen ditu promotoreak, horietatik bederatzik babes ofizialekoak. Hirigintza plana berritza ere proposatu zuen Bilduk.

UDALAREN EGOERA

Udalaren kontuen berri ere eman zen eta azken urtean 320.000 euroko sarrerak eta 220.000 euroko gastuak izan dituela jakinarazi zen. Hala, Udalaren egoera ekonomikoa ona dela aipatu zen. Horrez gain, kontzejuekin elkarlana eta herritarren parte-hartzea bultzatu nahi ditu Bilduk.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jendeak arretaz jarraitu zituen emandako azalpenak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Kuku Elkartearen 25. urteurreneko ospakizunak

Egun eguzkitsua atera zuen abuztuaren 20an, Kuku Elkartearen 25. urteurrena ospatzeko egunean. Goiz-goizetik hasi zen ospakizun besta. Gosaria izan zen lehenengo. Ondotik, mus txapelketa egin zen eta hamar bikotek parte hartu zuten. Egurdi partean, elkartearen sortzaileei omenaldi txiki bat egin zitzairen. Elkarteko bi bazkidek aurrekoa dantzatu ondotik, urteurrenerako apropos egin zen zapia oparitu zitzairen. Aipatu zapiak berriki sortu den elkarteko logoa darama, bazkide batek sortu duen logoa, hain zuzen. Ondotik, koadro bat oparitu zitzairen eta hau elkartean jarri da. Guzti hau bukatzean, bazkari goxoa egin zuten elkarteko atarian bildutako 75 lagunek eta arratsaldean DJ-a izan zen. Giro ezin hobea sortu zen eta orain 50. urteurrena iristeko zain gelditu dira herrian. Lerro hauek aprobeztatuz, elkarteko junteroei eskerrak eman nahi izan zaizkie, besta hau antolatzeke egin duten lan guztia eskertuz.

ERATSUN

FESTAK → IRAILAREN 8TIK 11RA

Aizkora apustua eta pilota partidak izanen dira festetako egun haundian

Lau egun iraunen dute Lokariko Amabirjinaren festek

OSTEGUNA 8

09:00etan txupinazoa. **Ondotik** txistulariak herrian barna ibiliko dira, festei hasiera emanez. **12:00etan** Meza Nagusia Lokariko Amabirjinaren ohorez. **Ondotik** luntxa. **13:00etan** aizkora apustua: Erasun eta Larretxea, Rekondo eta Saralegiren aurka ariko dira. **17:30ean** pilota partidak. Afizionatu mailako bi partida jokatuko dira: lehenengoa, lau t'erdian, Armen-dariz eta Urdaniz eta bigarrenean, Bendoiro eta Azanza, Juanenea eta Lukinen aurka. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin.

OSTIRALA 9

10:00etan argisoinuak txistulariekin. **11:00etan** herriko mus txapelketa. Bikote txapeldunak bildots bana eramanen du; bigarrenak bina txuleta eta bina botil ardo eta hirugarrenak bina txuleta. **17:00etan** herriko frontenis txapelketa (zozketaren bidez osatuko dira bikoteak). **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin.

LARUNBATA 10

10:00etan argi soinuak txistulariekin. **14:00etan** zikiro jatea. **18:00etan** Doneztebeko Erreka Dantza Taldearen saioa. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia OBANAUKE taldearekin.

IGANDEA 11

10:00etan argisoinuak txistulariekin. **11:30ean** tortilla lehiaketa. **Ondo-**





ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Aizkora apustua ikusteko asmoz, jende asko biltzen da urtero festetan.

tik dastaketa. **Goizez** umeen parkea gaztelu puzgarriekin. **Arratsaldean** umeendako jokoa. **18:00etan** pilota par-

tidak: lehenengo partidana, lau t'erdian, Anso-tegi eta Pazos ariko dira eta bigarrenean, Garrantza eta Landiribar, Ur-

daniz eta Azanzaren kontra. **Arratsaldez** dantzaldia izanen da MODESTO akordeoilariarekin.



APARAN, S.A.

BRINKOLALA eta ZURAK

- Metamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate amuntak eta sukaike mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bamurako mobleak eta osagariak
- KIT mobleak: esku-erremintak, itab.



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

BESTAK → IRAILAREN 7TIK 11RA

Arria II.a, Loiarte, Agite eta Kastro larunbateko aizkora apustuan

Herri bazkarian Julio Soto eta Aitor Mendiluze ariko dira bertsoan

ASTEAZKENA 7

20:00etan altxaferoak beste hasiera emanez. **Ondotik** Doneztebeko txistulariak herrian barrena ibiliko dira. **21:00etatik aitzinera** zopak Herriko Ostatuan. **Gauez** dantzaldia izanen da AGERRALDErekin.

ORTZEGUNA 8

11:00etan Meza Nagusia. **Ondotik** luntxa Herriko Ostatuan. **Arratsalde**z herri-kirolak herritarren artean (haur eta helduentzat). **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia AGERRALDE akordeoilariarekin.

ORTZIRALA 9

11:00etan mus eta par-



ARGAZKIAK: ALBERTO SAN MIGEL

Aizkora apustua, haurrendako jokoak eta herri bazkaria hutsik egiten ez duten ekitaldiak dira.

txis txapelketa herriko elkartean. **17:00etan** Oreka Nafarroako Zirko Eskola. **Ondotik** haurrendako jokoak herriko plazan. **Segidan** haurrendako eta helduendako txokolatea.

19:30ean herritarren arteko VIII. patata tortilla lehiaketa. **Ondotik** tortilla, xingarra, txistorra eta gazta dastaketa. **Arratsalde**z eta **gauez** dantzaldia FRANTZISKO akordeoilariarekin.

LARUNBATA 10

11:00etan pilota partidak gaztetxoek eta afizionatuen artean. **18:00etan** aizkolariak: Arria II.a eta Loiarte alde batetik, Agite eta Kastro bertetik. **Arratsalde**z eta **gauez** dantzaldia AIERRIK taldearekin.

IGANDEA 11

11:00etatik aitzinera herriko artisauen erakusketak. **14:00etan** herri bazkaria Julio Soto eta Aitor Mendiluze bertsoariarekin. **17:00etan** toka eta sokatira herritarren artean. **Arratsalde**z eta **gauez** dantzaldia AIERRIK-ekin. **Bestei bukaera emateko** kalejira herrian eta GAIXOA NI.

www.pasadaoitiz.com

948 451 051 • 948 450 168 • OITZ
www.pasadaoitiz.com

ONGETZESA BESTAKI!

EZPELURA ITURGINTZA S.L.

Kalofakzioa • Gasa
Elektrizitatea • Eguzki plakak
Zoru bero emailoa

Tfno.: 606 337 427 • OITZ (Nafarroa)

OITZKO UDALA • NAFARROA

Oitizko Udalak
besta zoriontsuak opa ditzkie
herriar eta bisitari guztiei

EZKURRA

BESTAK → BUKATU DIRA AMABIRJINAK

Herritarren arteko aizkora apustua izan da festetako ekitaldirik jendetsuena

Martin, Moises eta Jabierren saioak ikusmina piztu du

Fernando ETXEBERRIA

Trikitixa doinuek alaitutako afariarekin hasi ziren aurtengo festak abuztuaren 14an. Biharamun goizean, Meza Nagusia izan zen eta arratsaldean, berriz, hiru herritarren artean aizkora apustua jokatu zen: Martin, Moises eta Jabier aritu ziren nor baino nor eta lehenengoa nagusitu zen, pare bat aizkora golpeko aldearekin. Adineko batzuen arabera, herritarrek jokaturako azken proba duela 45 urte egin zen, bost lagunen artean.

Ekitaldi arrakastatsua izan zen, jende asko hurbildu baitzen ikustera, eta seguru aski festetako ekimenik jendetsuena izan zen. Musika ere ez zen falta izan eta biharamunean herriko gazteek herri kirol saioa egin zuten. Afari



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Goiko argazkian herri kirolean ibili ziren gazteak; behekoetan Cipriano egurrak prestatzen eta Jose Luis herri bazkarirako txuletak erretzen.

eder batekin eta ondorengo festarekin eman zioten egunari bukaera.

Azken egunean herri bazkaria egin zen eta hemen 92 lagun elkaritu ziren. Aurten lehenengo aldiz, Udalak 65 ur-

tedik gorakoak gonbidatu zituen, eta hementik aurrera ere hala egitea espero dugu.

Baina ia ez da inor ohartzten horrelako ekitaldien atzean herritar askoren lana dagoela.

Herri bazkaria, adibidez, Jose Luisek antolatua egiten da, bost laguneko laguntzarekin.

Ciprianoaren lanak ere aipamena merezi du, aizkora probetarako egurrak berak presta-

tzen baititu. Zuhaitzak bota, zuzentu, bere erremolkean frontoira ekarri eta behar den bezala jarri... Berak egiten du, Migel, Txuma eta abarren laguntza du.

Eta herri kirolak prestatzen dituztenetaz ere ezingara ahaztu, eta ondotik arazorik gabe dantza egiteko frontoia garbitzen dutenetaz ere ez. Guztion izenean, zorionak eta eskerrik berroenak.

Txantxangorri elkarteko bazkideen bilera

Uso ehiza denboraldia izan zuten hizpide uztailaren 30ean bildu ziren ehiztariek. Txantxangorri elkarteko arduradunek diru kontuen berri eman eta onartu ondotik, konpontzeko beharra duten bideak zehaztu eta ehiza postuen inguruez mintzatu ziren. Gainerakoan, baja bat eta alta bat egon dira. Txartelak banaketxean eskura daitezke, aurretik behar den ordainketa egindakoan.

POSADA OITZ

Wuzi txantxa

%10eko DESKONTUA

zalain
RESTAURANTE

Zalain auzoa zig
31780 Bera
t: 948 631 106
w: www.zalain.com

zalain

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behean • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colón Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 632050 • IRUN

OSPAKIZUNAK → XX. URTEURRENA

Des-kontrol, Bongo Botrako, Esne Beltza eta 3Gabe2 taldeek joko dute Gazte Asanbladaren urteurreneko festan

Azaroaren 12an ospatu dute gazteek urteurrena

TTIPI-TTAPA

Oraindik bi hilabete baino gehiago gelditzen badira ere, herriko gazteak burubelarri dabil-tza Gazte Asanbladaren XX. urteurreneko festa haundia prestatzen. Eguna zehaztu dute: azaroaren 12an izanen da. Baina ez hori bakarrik, egitarauaren

berri ematen ere hasi dira.

Xehetasun guztiak aurrerago emanen ditugu, baina jakin, egun osoko festa izanen dela: 20 urte iruditan argazki erakusketa, 20. urteurreneko graffitia eta argazkia, herri bazkaria, elektrotzaranga, ekitaldi nagusia eta gauean kontzertuak. Punta-puntako taldeak gonbidatu dituzte Gazte Asanbladako kideek: Des-kontrol, Bongo Botrako, Esne Beltza eta 3gabe2 taldeek joko baitute fron-



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Batez ere egunez oso jendetsuak izan dira Amabirjinak

Festa ederrak izan dira aurtengo Amabirjinak ere, eta batez ere herrikoiak. Egunez izan diren ekitaldietan jende asko ibili da, baina gauez, beharbada, ez hainbeste. Guztien artean, Gazte Eguna eta Umore Ona Peñaren Eguna izan dira jendetsuenak eta Emakumeen Eguna ere oso harrera ona izan du.

toian. DJ Bull, berriz, Gaztetxean ariko da.

1991n hasitako bigarren edizioa merezi bezala os-

patzeko egitarau eder-rra.

1951 **60** 2011
stati-martio
Casa Cambres

edredoi fundak
 edredoi nordikoak
 ohe estalkiak
 albornoak
 maindireak
 mgntelak
 kuxinak
 toallak

Udako merkealdia

Tafalla, 13 • JRUÑEA • 948 230 634

LEITZA

OSPAKIZUNAK → AISIALDIA

Taloak, artisauak, animaliak eta herri kirolak irailaren 11n eginen den Taloaren Egunean

Eskualdeko talo lehiaketa eginen da

TTIPI-TTAPA

Plazaola Partzuergo Turistikoak Taloaren Eguna antolatatu du aurten ere. Irailaren 11n eginen da eta egitarau osatu prestatu dute.

10:00ETAN

MERKATUAREN IREKIERA

- Leitzako talo-egileak (Villabona-Saralegi).
- Artisauak.
- Taloa egiteko eta baserriko tresneriaren erakusketa.
- Haurrentzako gurdi ibilaldiak.

11:00-13:30. EKINTZA GASTRONOMIKOAK

- Eskualdeko talo lehiaketa. Lehenengo hiru sailkatuentzat sariak banatuko dira kirolak bukatu ondoren.
- Taloarekin egindako plateren erakusketa Musunzar, Peritza, Txoko, Elusta eta Lekuonberri ostatu enketik.
- Taloa egiteko tailerra (4-14 urte).

12:00ETAN HERRI KIROLAK

- Euskal Herriko Aizkolari Gazteen Txapelketa.

Inbertsio berriak Sarriopapelen

Paper metalizatua-ren produkzioa %70 areagotuko duen inbertsioa egin du Sarriopapel lantegiak. Lau paper mota egiten dira enpresan: termikoa, kalkoak, distiradun papera eta metalizatua eta azken honetarako makina berria eskuratu du, 4,2 milioi euroko inbertsioa eginez. Makina 2012. urte hasieran jarriko da martxan eta urtean 10.000 tona produzitetik 17.000 produzitza pasako da.

LAB sindikatutik adierazi dutenez, krisi garaian, «herriarentzat eta inguruko herriarentzat» inbertsio berriak egitea «oso positiboa» da. Leitzako Sarriopapel gaur egun dituen 460 langile horietatik 330 finkoak dira, eta 100 langile inguru bost urteko errelebo kontratuekin daude. Leitza ekoizten diren produktuak 79 herrialdetan komertzializatzen dira, produkzioaren %80 esportaziora bideratzen baita.

Inbertsio berri hauei esker, langileak «pozik eta gustura» daudela esan dute LABetik, «lanpostuak eta etorkizuna» ziurtatzen direlako.

Nafarroako Triatloi Olinpiko txapelketan Saizar nagusi

Uztailaren 10ean Nafarroako Triatloi laburreko txapelketa irabazi zuen Judit Saizar herritarak Tuteran eta abuztuaren 7an, distantzia olinpikoan ere Nafarroako Triatloi txapelketan nagusitu zen Iruñean. 17 urterekin oraindik junior mailako kirolaria bada ere, Saizarrek txapelketa absolutoa irabazi zuen emakumezkoen artean.



ARGAZKIA: ELENE ARRAZOLA

Seigarren urteurrena ospatu du Gaztetxeak

Atekabeltz Gaztetxearen seigarren urtebetetzea ospatzeko hainbat ekitaldi egin ziren uztailean: hitzaldiak, mendi martxak, *Sagarra denbora* dokumentalaren edo labor txapelketara aurkeztutako lanen proiektzioak... Uztailaren 23a izan zuten egun handia. Bizikleta gainean diana egin ondotik, II. Binakako frontenis txapelketaren finala jokatu zen frontoian. Aurtengoan Iñigo de Carlos eta Josu Beldarras izan ziren irabazleak (urduz eta beltzez) eta Luis Abruzza eta Xabier Loitegi azpitxapeladun. Kirolaren ondotik, sei urtek merezi duten brindisa, bazkaria, poteoa karro musikatuarekin eta konzertua izan zituzten.



ARGAZKIA: ELENE ARRAZOLA

Leitzalarreko bidearen moldaketa 63.000 euro kostatu da

Joan den urteko ekaitzek egoera kaxkarrean utzi zuten herritik Leitzalarreko basora doan errepidea, bide erdian bide puska bat erori baitzen euriteen ondorioz. Errepidea lehenbailehen moldatu beharra zegoen, baina gastu handia zen eta Udalak ezin zuen bere gain hartu. Nafarroako Gobernuako Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuari laguntza eskatu zitzaion eta bien bitartean, bidean hesiak eta beste segurtasun neurriak jarri zituen Udalak. Gobernutik dirulaguntza emanen zuela jakinarazi eta uztailean abuztuaren 7an moldaketa lanak. Lanen aurrekontua 63.000 eurokoa izanen da eta Udalaren eta Gobernuaren artean ordainduko da. Herriko Joarbe eskabazio enpresa arduratu da lana egiteaz. Leitzalarreko errepidearena da aurten Udalak egin duen bigarren inbertsiorik handiena. Nagusia Iberoko dorrea erostea izan zen, 200.000 euroren truke. Udalaren asmoa, Iberoko dorrea eta bere inguru guzira birmoldatu eta publikoari zabaltzea da. Iazko kontuak 683.148 euroko saldoarekin itxi zituen Udalak eta horri esker, aurrekontuan aurreikusiak ez zuden lan eta ekimenak egin ahal izan ditu.



MENDIA → PLAZATIK ABIATUKO DA

Igande honetan egingen da mendi martxaren laugarren edizioa

23 kilometroko ibilbidea egin beharko dute mendizaleek

Juana Mari SAIZAR

Dena prest dago igande honetan, irailak 4, egingen den Mendi Martxarako. Aurtengoa laugarren aldia izanen da eta aurrekoetan bezala, plazatik abiatuko da, 08:00etan.

Mendizaleek 23 kilometro eta 1.250 metroko desnibela duen ibilbideari egin beharko diote aurre. Bitarte horretan, plazatik aterata, Urteaga (606 metro), Ulizar (867 metro), Merkuzelai (720 metro), Urki-za (850 metro), Pagozelai (705 metro) eta Gurutzen barna (955 metro) pasako dira plaza berriz ailegatu aurretik. Mendi martxaren iraupena lauzpabost ordukoa izanen da.

IZEN-EMATEA

Izen-ematea aurretik (irailaren 1a azken egu-

na) eta egun berean egingen ahalko da: eguna baino lehen 948 604545 telefonoan, kirolmank@gmail.com-en edo www.mendizmendi.com-en egin daiteke. Bost euro ordaindu beharko da. Egun berean, berri, 07:00etatik 07:45era izanen da apuntatzeko aukera, 10 euro ordainduta.

Ibilbidearen bukaran, paella, sagardoa, opariak eta zozketak izanen dira.

EGURREZKO LABEKO OGIARI AGUR

Egurrezko labean egiten zen Aresoko ogiak erretiroa hartu du. Karmen eta Juanito azken okinek beren lanbidea utzi dute eta herriko okindegia ere erretiroa hartzearekin batera desagertu da. Oso ezaguna genuen hemengo ogia, berezia baitzen. Urte askotan gozatu dugu dastatuz, eta orain, Juanito eta Karmen merezitako bizimodu berri eta lasaiagoa dastatzen hasi dira.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Giro onean joan dira festak

Aurtengo festak ere bukatu zaizkigu, otordu asko kanpoan egin ondoren amaierara ailegatu dira. Urtero bezala, giro polita sortu zen herriko plazan, jendea festarako gogoz atera zen etxetik eta esan behar da poza ematen duela herriko plaza jendez beteta ikusteak. Festei hasiera eman zien suziria bota zuena Odei Garmendia herriko lau urteko haurra izan genuen, beste batzuen laguntzaz. Eta suziri hotsarekin batera, ekitaldiak ere martxan jarri ziren. Hauen artean aipatzekoa da egunero izan dela kanpoan jateko aitzakiaren bat txapelketak eta musika tartekatuz. Aurtengo honetan plater tiroketa ezin izan zen jokatu; eguraldia zela eta, bertan behera utzi behar izan genuen. Kuadrilen eguna, berri, azken egunean ospatu genuen, eta urteroko legez, koloretsu jarri genuen herria. Egun indartsua izaten da herritar guztientzat eta begi bistakoa da denon egunik gustukuenetakoa ere badela, ez baitzen gogo eta giro faltarik izan eta festei amaiera emateko egun ezin hobea tokatu zen. Beti esaten den moduan, orain gero eta gutxiago falta da hurrengo urteko festetarako.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Euskal selekzioaren aldeko mendi martxarekin bat eginez

ESAI Tek antolatuta, aurten hamaikagarren aldiz egin den mendi martxak Amaiur eta Areso lotu ditu eta bide horretan Aresotik ere pasatu zen. Ongi etorria egin genien herritarrok eta ondoren Ulizar mendiraino igotzen ere lagundu genien.

Eskeleak igotzeko... ez da erropo/ plataforma/ igogailu berriak/ auki berriak...

Behetik

Azaroa-iraila 14 • T. 943 368 781 • 671 073 886
www.behetik.com

ARANO

OSPAKIZUNAK → UZTAILEAN EGURALDI TXARRA EGIN ZUELAKO

Aurtengo santioak irailaren 17an ospatuko dira

Pilota partida, haurrentzako puzgarriak, herri kirolak eta bertsolariak izango dira

Ainhoa ANSA

Udan festa egiteko aukera bat baino gehiago izan dute Arano-ra gerturatu direnek: sardina jatea, San Roke, bestelako afariren bat... Baina Santioak ospatzeko modu handirik ez zen izan aurtengoan. Eguraldi txarrak erabat zapuztu zituen antolatutako ekitaldi asko eta ondorioz, suspenditu zirenekin irailaren 17an festa-eguna antolatzea erabaki zuen jai batzordeak.

Hortaz, irailaren 17an, larunbatarekin, hasteko, Arano-Goi-zuetaren arteko pilota partida jokatu da eguerdian. Arratsaldean txikienek puzgarriak izango dituzte go-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Festetako hainbat ekitaldi egin gabe gelditu ziren, eguraldi txarraren ondorioz.

zagarri eta herri kirol eta bertso saioarekin arratsalde polita igarotzea espero dute oraingoan.

Bide batez, Arano-ko jai batzordeak eskerrak eman nahi dizkie, beren lanarekin, euripean festei zutik eusten lagundu zieten guztiei. Eta barkamena eskatu ere bai bertan ekitaldiren bat ikus/entzuteko asmoz etorri eta asmoa bete

gabe itzuli behar izan zutenei.

Irailaren 17an Arano-ko elkar ikustea espero dugu.

Arnas irakaskuntza eta terapia: «hats bizigarria»

Joan zen ikasturtean Udaletxeko ganbaran norberaren gorputza arnasketa bidez hobeki ezagutzeko ikastaro berezia eman zu-

en Kontsejuko Ainhoak. Bi ikaslerekin egin zuen aurrera lehenengo saiakeran eta orain, irailan, berriro hasiko dira klaseak interesa duten guztientzat.

Gorputza sumatu ahala, arnasketa inkontzientea kontziente bihurtzen da eta hori da, hain zuzen ere, «hats bizigarria» deitzen duguna.

«Hats bizigarri» hori aurkitzeak fisikoan

ARNAS IRAKASKUNTZA

Norberaren gorputza arnasketa bidez hobeki ezagutzeko aukera izanen da irailan, Kontsejuko Ainhoak emanen duen ikastaroarekin. Interesatuak galdetu Kontsejun Ainhoari.

eta baita barrurago ere (gogoan) eragiten du era askotara: deskantsua eta arintasuna emanez, bizkarrezurra tentetuz, postura edo jarrera zuzenduz eta oreka emanez, poza eta indarra bezalako sententzioak piztuz...

Hori da ikastaro honetan lortzen saiatzen dena eta beraz, interesa duen edonork informazio gehiago eska dezake Kontsejun bertan Ainhoari galdetuz. Izena emateko eta gainerako datuen berri ere bertan emango dizuzte.

Animatu eta eman izena!



ttipi-ttapa

TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Zure laguntza eskertzeko
DOKUMENTU-POLTSA
bat izanen duzu opari



Eska ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratu izanaren frogagarria Nafarroako Kutxaarekin zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPARA aberriaren 30a baino lehen.

Proiektuaren
inbentarioa
Can
**proiektu
zenbakia
15.996**

EUSKARA → «GAZTELANIA BAZTERTZEA» LEPORATUZ

Euskararen Ordenantzagatik Udala auzitara eraman nahi du Madrilgo elkarte batek

Hizkuntza
Askatasunaren
Aldeko
Espainiako
Elkartearen
kexa onartu du
Nafarroako
Arartekoak

TTIPI-TTAPA

Aitzineko agintaldian abiatutako Udal idazkariaren ordezkapen posturako oposizio-lehiaketa bertan behera gelditu zen Udal berria lanean hasizenean. Horren arrazoia, lehiaketan, euskara eskakizun bezala ez agertzea izan zen -100 puntutik 2 puntu balio zituena euskara jakiteak-. Oihartzuna izan zuen horrek eta Euskararen Ordenantzari buruzko eztabaida ere eragin zuen. Hala etorri zen Hizkuntza Askatasunaren Aldeko Espainiako Elkartearen salaketa.

Udala «euskara inposatzeko» neurriak hartzen ari dela iritzita, Udala auzitara eraman nahi du Hizkuntza Askatasunaren Aldeko Espainiako Elkarteak. Horren harira, Nafarroako Arartekoari ere kexa bidali zion uztailaren 5ean, eta honen idatzia onartu eta Udalera bidali zuen idatzia kopia, gaiari buruz erantzuna eskatu. Uztailaren 29an sartu zen Arartekoaren abisua Udalan.

Espainiako Elkartetik jakinarazi dutenez, auzitarajotzeko asmoa dute «Baztango Euskararen

Ordenantzak bizitza publikotik gaztelania baztertu egiten duelako».

Dirua biltzeko kanpaina ere abian paratu du Madrilgo elkarteak, auzitegiatara joateak sortu ditzakeen gastuei aurre egiteko.

UDALAREN ERANTZUNA

Egoeraren aitzinean Udalak zer eginen duen jakiteko Garbiñe Elizegi alkatearengana jo du TTIPI-TTAPAK eta adierazi digunez, «Udalak ida-

BILDUREN AURKA

«Bilduk alkatetza duen herria izatea ez da kasualitatea, horrelako elkarteak aukera politiko bat baitu bere erasoen helburu»

Garbiñe ELIZEGI
Alkatea

tziari erantzuna emanen dio bertze idatziei ematen dien bezala. Duda-rik gabe, Euskararen Ordenantza eta euskara defendatuko ditugu eraso


guztien gaintik, datozen tokitik datozela». Gaineratu digunez, «baztandarron hizkuntza esku-bideak bermatuko ditugu, eta ez dugu onartuko euskaldunak bigarren mailako herritar gisa tratatzea, herritar orok baitu euskaraz ere artatua izateko eskubidea».

Elizegiren irudiko, «Espainiako eskuinak euskarari dion fobia agerian gelditu da berriz ere. Beraiek eraman duten errepresioa eta zentsura

beraiei eginen zaienaren beldur dira, baina hori ez da inolaz ere gure asmoa». Horrekin batera, salatua dena «Bilduk alkatetza duen herria izatea ere ez da kasualitatea», dio alkateak, «horrelako elkarteak aukerapolitiko bat baitu bere eraso- en helburu. Kontua da Bilduk alkatetza duen udaletxeetan egindako edozein aldaketa aitzakiatzat hartzea Bilduren aurka jo ahal izateko».

Aitzineko agintaldiko Udala izan zen Euskararen Ordenantza onartu zuena, baina Elizegik us- te du «arazoa alkatetza Bilduk lortu duenean sortu dela, ez Euskararen Ordenantza onartu zenean. Izan ere, Ordenantza maiatzaren 17an sartu zen indarrean Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Bilduk alkatetza lortu baino lehen. Kexa ez da beranduxko heldu? Kasualitatea ote da berandutzea?».

«Baztan bezalako eskualde euskaldunetan NaBairen Udal Gobernuak euskara eskakizuna izan gabe lehiaketa hori abiatzea ulertezina dela» ere iritzi dio alkateak. Eta Udal berriak «Udalean euskarak orain arte izan ez duen eta merezi duen esparrua izateko lan eginen duela» ziurtatu du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ugaitz Garde gartzaindarra hirugarren izan da Nafarroako Triatloi Kros txapelketan

Abuztuaren 15ean Nafarroako Triatloi Kros Txapelketa erabaki zen Ultzaman eta Ugaitz Garde gartzaindarra -argazkian eskuinean- bikain moldatu zen. Iñigo Aldaz eta Jorge Tirapuren gibeletik, hirugarren sailkatu zen Lagunak Salto-ki taldean ari den gaztea. 500 metro egin behar izan zituzten igerian Leurtzako urtegiatan, gero 15 kilometro mendiz Alkotz herriraino eta akitzeko hiru kilometro lasterka Larraintzerreraino. Lasterketan zazpigarren helmugaratu zen, baina Nafarroako txapelketa izaki, lehenbiziko hiru nafarrak sarituak izan ziren, eta tartean Garde bera, hirugarren onena izan zelako. Duela lau urte hasi zen triatloian gartzaindarra eta geroztik hainbat lehiatan ibilia da, lorpen aipagarriak lortuz: 2009an Euskal Herria Akitaniako ligaxkan hirugarren izan zen, 2010ean Challenge Calella Iron Man 1/2 proban hirugarren izan zen taldeka, urte berean Nafarroako selekzioarekin aritu zen Galizian, 2011n hirugarren nafarra izan da Nafarroako Triatloi Kros Txapelketan eta laugarrena Nafarroako zirkuituan. Orain, berriz, irailaren 10ean Donibane Lohizunen egitekoa den triatloirako ari da prestatzen. Distantzia luzeko triatloia izanen da, 2.500 metro igerian, 80 kilometro bizikletan eta lasterka 20 kilometro egin beharko baititu.



BAZTAN

ARRAIOZKO BESTAK → IRAILAREN 2TIK 5ERA

Ortziral eguerdian botako den altxaferoarekin hasiko dira lau eguneko bestak

Larunbatean Ze Esatek! taldeak kontzertua eskainiko du eta igandean Blkondoak herri kirol erakustaldia

ORTZILERIA 2

12:00etan altxaferoa. **Segidan** txistulariak. **14:00etan** haurren bazkaria. **16:00etan** haurrendako jokoak. **18:00etan** txokolatada. **20:00etan** dantzaldia JOXEANJELeKin. **21:00etan** Mutildantzak eta muxikoak. **21:30ean** Baztanzopak fanfarre batek alaituek. **01:00etan** dantzaldia JOXEANJELeKin.

LAUNBETA 3

10:00etan argisoinuek. **11:00etan** herriko xaharrendako karta jokoak eta hameketakoa. **11:30ean** plater-tiroketa. **14:30ean** gazteen bazkaria. **17:00etan** mus txapelketa, Arizti Elkarteak antolatue. **19:00etan** tortilla txapelketa eta segiden tortille dastaketa. **20:00etan** dantzaldie MIKEL HATSeKin. **21:30ean** gazteen afa-rie. **23:00etan** kontzertue ZE ESATEK! taldearekin. Gaitajoleak, gaurpasa MIKEL HATSeKin. **Segidan** DJ JULEN.

IGENDEA 4

10:00etan argisoinuek. **18:00etan** herri kirolak: Bikondoaren erakustaldie: aizkoran buruz be-



ARGAZIAK: VIRGINIA OTEIZA

Goiko argazkia herriko xaharren karta joko ondoko hamaiketakokoa da, hurrengo biak boneta botatzearena eta mus txapelketako irabazleena eta azkenekoan herriko gazteak ageri dira.

heiti eta motozerrarekin figurak egiten ariko da. Horrez gain, herritarren arteko proba konbinatuek jokatu dira: ezkongabeak ezkonduen kontra ariko dira.

20:00etan kantaldie.

ASTELEHENA 5

14:30ean herri bazkaria bertsoariekin.

17:30ean boneta botatzea. **19:00etan** dantzaldie AGERRALDERekin. **22:00etan** herri afa-rie. **00:00etan** dantzaldie AGERRALDERekin. **Ondotik** GAIXOAK GU.

GILTXAURDI

Udal kirol instalazioa Instalación deportiva municipal

Aerobic | Helduendako uretako gimnasia | Aquagim | Cicloindoor
GAP (gorputz tonifikazioa) | Pilates | Haurrentzako eta helduentzako igeriketa
Instaketa | Haurrentzako Herri Kirolak | Body Pump | Helduentzako dantzak

IZENA EMATEKO EPEA:
irailaren 19 eta 20. (bastandarenzat)
irailaren 21etik aurrera (denentzat)

IKASTURTE HASIERA:
urriak 3-4

Pedro Axular, 14 31700 ELIZONDO
948 45 23 01
info.giltxaurdi@mascuatro.com

ELBETEKO BESTAK → IRAILAREN 14TIK 18RA

Gurutze Sainduaren Egunean hasiko dira bortz eguneko bestak

Zikiro jaterako txartelak Elbeteko ostatuan eta Karrika ostatuan salgai

ASTEAZKENA 14 Gurutze Sainduaren Egune eta Haurren Egune

11:00etan suzeria eta ezkil jotzea. **11:30ean** Meza Nagusia. **Ondotik** Mutildantzak eta luntxa. **14:00etan** haurrendako bazkaria. **17:00etan** antzerkia. **Ondotik** txokolatada eta japoniar bonbak. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia FIDELekin.

ORTZEGUNE 15 Herritarren Egune

09:00etan argisoinuek. **14:00etan** herri bazkaria Karrikatxarren FRANTZISKOREkin.

ORTZILERIA 16 Txopo Goratze Egune

09:00etan argisoinuek. **16:00etan** haurrendako ginkana. **Ondotik** merendola. **18:30ean** futbol partida: gazteak helduen kontra. **21:00etan** Baztan Zopak Herriko Ostatuan FRANTZISKOK alaiturik. **00:00etan** txopo goratzea. **Ondotik** kontzertuak: ASKATU, BATAKADA eta TALDE SORPRESA.

LAUNBETA 17 Zikiro Egune

09:00etan dianak. **14:00etan** zikiro jatea Iñaki Aleman eta Julen Zelaieta bertsolariekin. eta Maialen eta Maialenen trikitixa doinuekin. **20:00etatik 22:00etara** eta **00:00etatik 04:00etara** dantzaldia MIKEL HATS taldearekin.



ARGAZKIAK: KARMELE ALBERRO

Giririk ez da falta izaten Elbeteko bestetan, ikusi bertzerik ez dago argazkietan nola den.

IGENDEA 18

09:00etan dianak. **16:00etatik 20:00etara** haurrendako puzgariak eta kars-ak plazan. **18:00etan** japoniar bonbak plazan. **18:00etan** mus eta partxis txapel-

09:00etatik 22:00etara dantzaldia FRANTZISKOREkin. **22:00etan** zozketa: lau pertsonendako afaria, bi pertsonendako afaria eta bi gasna zozketatuko dira. **Ondotik** GAIZUA NI.

OHARRA

Zikiro jaterako txartelak Elbeteko ostatuan eta Karrika ostatuan daude salgai. Bakoi-tzak bere platera, tenedorea eta nabala eramane beharko ditu.

ANTXITONIA
Berritu izateko 16. Etanaka • 948 581 807 • 948 581 853
bestak@antxitonia.com • www.antxitonia.com

SOULE
Berritu izateko 16. Etanaka • 948 581 807 • 948 581 853

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berritu izateko 16. Etanaka • 948 581 807 • 948 581 853

ELBETEKO POSADA
ONGE Pasa BESTAK!
Eguneko menua
Aste hondeketan karta
Enpresa otorduak
Familia bikorak
Bataloak
Karrikaundi z/g
ELBETE
T. 948 581 519
info@posadaelbete.com
www.posadaelbete.com

BAZTAN

ZERBITZUAK → KUDEAKETA PRIBATUA IZANEN DU

Bi hilabetez itxita egon ondotik udan zabaldu ditu ateak Loizu hiltegiak

Loizu hiltegia SL enpresak hartu du gestioaren ardura

TTIPI-TTAPA

Sortu zenetik 14 urtera, zer erran franko ematen ari da Loizu hiltegia, eta bi hilabetez itxita ere egona da uda aitzinetik. Uztailean, ordea, berriz zabaldu zituen ateak eta aziendak hil eta puskatzeko zerbitzua eskaintzen segitzen du. Halere, kudeaketa ez da lehengo berdina. Esku pribatueta dago aitzineko Udalak horretarako lehiaketa egin ondotik, Loizu hiltegia SL enpresaren esku, hain zuzen.

14 URTEKO IBILBIDEA

Udalak 1997an sortu zuen Loizu hiltegia Iruritan, hasi Bortzirietatik eta Xareta aldera bitarteko beharrak hornitzeko. 1993ko Europako hiltegien araudi berriak eskualdeko hiltegi tikiak ixtera behartu zituen eta hutsune hori betetzeko egin zen Iruritakoa. Hasi hartan, elkarte mugatuko kide batzuek hartu zuten gestioaren ardura, orduko Udalarekin bertz urterako kontratua sina-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Udalak 1997an sortu zuen Iruritan kokatua dagoen Loizu hiltegia.

tuz. Baina aurrekusi baino lehenago hautsi zen akordioa. Hiltegia ixteko arriskuaz jabeturik, aitzineko Udalak Baztandarra Kooperatibara jo zuen kudeaketaren ardura eskainiz. Honen eskaintza onartu eta horrela izan da 2001az gozotik, hamar urtez.

ENPRESA PRIBATUAREN ESKU

Badirudi, Baztandarra Kooperatibaren egoera ekonomikoa ez dela sobera ona, eta hiltegiak gastu handia sortzen ziolako, kudeaketaren ardura bertan

UTZIKERIA

«Loizu hiltegiarekin utzikeria ikaragarria egin da»

Mikel ORTEGA
Udal zinegotzia

DATUA

3

ENPRESA
aurkeztu ziren aitzineko Udalak hiltegiaren kudeaketaz arduratzeko egindako lehiaketara.

behera uztea erabaki zuen. Horren ondorioz egin zuen lehengo Udalak lehiaketarako deialdia. Hiru eskaintza aurkeztu ziren lehiaketara, eta Loizu hiltegia SL enpresari esleitu zitzaion hiltegiaren ardura. Lehendik hiltegian ibilitako langileak dira enpresako kideak.

UDAL BERRIA

Lehiaketa egin eta aipatu enpresari bertz urterako kontratua egin ondotik, hasi zen udal berria lanean. Mikel Ortega Bilduko zinegotziak aipatu digunez, sar-

tu zirenean, «Loizu hiltegiarekin utzikeria ikaragarria» egin dela ikusi zuten, baita «lehengo Udalaren eta kooperatibaren artean desadostasuna dagoela ere».

Tarte horretan, hiltegia bi hilabetez itxita ere egona da, baina uztailean zabaldu zuten berriz. «Lehenbailehen hiltegia martxan paratzea izan da gure helburua eta lehengo Udalaren herentzia txar hori ahal bezala konpontzen saiatu gara», dio Mikelek. Bere irudiko, «eskualde mailan hiltegi indartsu bat izatea arraz garrantzitsua da eta hori da gure helburua, eskualdera zabaltzea». Dena den, kudeaketa publikoaren aldekoak dira Bildun: «gure apustua etorkizuneko kudeaketa publikora bideratzea da, baina nekazaritza eta abeltzaintzako eragileekin osatuko den batzordean eta herri mailan eztabaidatuz erabakiko da zer egin. Oraingoz hiltegia martxan paratu eta gauzak ongi jarri nahi ditugu, azpiegitura aldeetik ere gabezia batzuk badirelako eta konpondu behar direlako».

Mikelen ustez, «gauzak ongi egiten badira, hiltegiak etorkizun ona izan dezake»



Suteela-Zaldain
Instalazioak

**IGOGAILUEN INSTALAZIOA
AROTEGI METALIKOA
TOLDOAK**

Santiago, 71
31700 ELIZONDO
T. 948 580 166
F. 948 452 557
M. 619 424 999 - 649 699 820



ARGAZKIA: MINTXO FERNANDEZ

Gazteak sokatiran, Txokoto bestetan.

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 9AN ETA 10EAN

Nesken frontenis txapelketako finala jokatu da Txokotoko bestetan

Horrez gain, paella lehiaketa eginen da ortzilerian

TTIPI-TTAPA

Irailaren 9ko ilunabarrean, 19:00etan botako den txupinazoarekin hasiko dira aurtengo Txokotoko bestak. Ondotik txistulariak izanen dira, erraldoi eta buruhandiekin. 20:00etan Baztanzopak dastatzeko aukera izanen da eta 21:00etan paella lehiaketa eta dantza herrikoiak izanen dira. 23:30ean izanen den kontzertuarekin akituko dira ortzileriko ekitaldiak.

Larunbatean egun osoan izanen dira ekitaldiak. 11:00etan plater tiroketa txapelketa

jokatuko da Bagordin. Aldi berean, argisoinuak izanen dira, txistulari, erraldoi eta buruhandiekin. Bonba japoniarak, berriz, Maurizio eta Felix plazan izanen dira. 11:30ean supermuga punto eginen da trinketean.

Eguerdian, 13:00etan, nesken frontenis txapelketako finala jokatuko da trinketean. Aurtengo bestetako berrikuntzetako bat izanen da nesken arteko lehia hau. Ondotik, 14:30ean, zikirojatean izanen da eta gero jokoak.

17:00etan puzgarriak izanen dira igerilekuan eta ilunabarrean eta gauean dantzaldia. Tartean, su artifizialak ere bai Jajapama pirotekniaren eskutik. Akitzeko Mokordo eta Tirri&Terry DJak ariko dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ttuku-Ttuku bikain Plentziako Hondartza Eskubaloi txapelketan

Uztailaren 16an Plentzian (Bizkaia) jokatu zen Hondartza Eskubaloi Txapelketa Nazionala, aurtun bederatzigarren aldiz. BKTko jokalariek, Ultzama eta Lizarrakoekin elkartuta aurkeztu ziren *Ttuku-Ttuku* izenarekin lehen aldiz. Finalerdietaraino iristea lortu zuten. Bortz jokalarirekin jokatu zuten Ttuku-Ttukuko neskek, bertze taldeetakoak seirekin aritu ziren. Totu Iturzaeta (BKT-ko jokalaririk ohia), Elisabet Arretxea (BKT), Talita Daiana José (BKT), Amaia Oiartzun (Ultzama) eta Eider Arcek (Lacturale Itxako) osatu zuten taldea. Bat gutiago izanda ere, finalerdietara iristea lortu zuten. *Blupp* taldeak utzi zituen finaletik kanpo eta azken hauek eskuratu zuten lehen postua. Emaitzarekin kontent eta hurrengo urtean finalerara iristeko intentzioarekin bueltatu ziren *Ttuku-Ttuku* taldeko neskek Plentzian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sorterrira itzuli dira Saharako neska-mutikoak

Bi hilabetez gure artean egon ondotik, Saharatik uda pasatzera etorritako 18 neska-mutikoak etxerako bidea hartu zuten abuztu hondarrean. Uda ederra pasatzeko aukera izan dute, eta ekitaldi ofizialetan ere izan dira. Uztailaren 30ean, erraterako, Baztango Udalak harrera ofiziala egin zien ume sahararrei. Ekitaldian, Garbiñe Elizegi alkatesak eta Mikel Ortega zinegotziak parte hartu zuten Udalaren izenean, Mohamed Gailani RASD-ek (Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren Elkarte) Nafarroan duen ordezkaria ere Elizondon izan zen, ume sahararrek eta horiek beren etxeetan hartzen dituzten Saharaztan elkarteko kideekin batera.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatuak

Santiago, 39 20 | ELIZONDO
T. 948 593 441 M. 630 364 811

MENDI
ostatuak

Santiago 25
948 500 312
ELIZONDO

BAZTAN

KIROLA → 1-3KO EMAITZAREKIN

Oberenak irabazi du 38. Baztango Udala Saria

Etxekoen gola Larregik egin zuen

TTIPI-TTAPA

Aurtengoarekin 38. aldiz jokatu den Baztango Udala Sariketan Oberena eta Baztan futbol taldeak aritu dira aurrez-aurre, baina garaipena ez da etxean gelditu.

Abuztuaren 20an jokatu zuten partida, termometroa 37 gradutan zela, eta 1-3ko emaitzarekin nagusitu ziren Oberenakoak. Markagailuan gibeletik hasi ziren Jabier Amianoren

mutilak, eta bana berdintzea ere lortu zuten, baina hortik aitzinera lruñeko futbolariak nagusitu ziren. Etxeko taldeak gol bakarra sartu zuen eta hura Larregik egindakoa izan zen.

Egun berean aurkeztu zuen Baztan Futbol Taldeak denboraldi honetan izanen duen taldea.

Lore, Zagua eta Luzaidek sariak banatu dituzte

Xorroxin irriatiak antolatutako behikaka.com zozketaren hirugarren edizioa ere arrakas-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Baztan eta Oberena futbol taldeko jokalariek, Baztango Udala Sariketan.

tatsua izan da eta Lore, Zagua eta Luzaide behiek aurten ere sari potoloak banatu dituzte.

Uztailaren 24an egin zen zozketa, eta hiru protagonistez gain, Agustin Arraztoa, Jokin Ramirez eta Juan Joxe Iñarrea behizainak, txaranga, bertsolariak, Joseba Otondo eta Julen Zelaieta Xorroxingo esatariak eta jende andana bildu zen zelai inguruan. Guztia kontrolatzen Oier Zulaika, Mikel Altuart eta Mikel Azkarate aritu ziren, eta

gainbegiratzen Juan Mari Aleman.

SARIAK ELIZONDO, ZUGARRAMURDI ETA ETXALARRERA

Lehendabiziko saria Agustin Arraztoa elizondarrarentzat izan zen. Bigarren saria momentuan banatu gabe gelditu zen eta hilabeteko epean ere ez zen jaberik agertu. Hala, ordeko zenbakiaren jabeak eraman du saria, Etxalarko Edurne Elizagoienek, hain zuzen. Eta hirugarrenak Zugarramur-

dirako bidea hartu zuen, Jose Jabier Zubillaga izan baitzen sari-tua.

Bertzalde, Donostiako akuariumerako sarre-rak Erratzura joan ziren, bizikleta Arizkunerak, Lurlan eta Aroa produktu loteak Anizera eta ESAITeko materiala, berriz, Elizondon gelditu zen.

Xorroxin Irratia «kontent» gelditu da eginda-koarekin, «eta gehienbat jendearengandik jasotako laguntza eta babesagatik».



UTZITAKO ARGAZKIA

Bortz txapeleko onddoa

Hainbat izanen dira uda honetan onddo bila ibili direnak, baina seguruenik ez du inork aurkitu izanen Arraiozko Juan Bautistak bezalako alerik, elkarri itsatsitako bortz onddo bilatu baititu uda honetan. Guztira 1,750 kilo pisatu zituzten.



ARGAZKIA: BERTAN ELKARTEA

Erratzura joan da Bertan elkarteko argazki lehiaketako sari nagusia

Abuztu honetan ere Bertan Baztango merkatari, zerbitzu eta ostalaritza Elkartearen egun handia ospatu zen Elizondon. Jaime Urrutia karrikan elkarteko kideek salmenta postuak paratu zituzten eta egun osoan hainbat ekitaldi izan ziren: dantzari tikiak, Les enfants taldea, argazki lehiaketaren erakusketa eta sariketa... Elizondoko herriak ere erraldoiak eta buruhandiak, txokolatada eta dantzaldia plazan antolatu zituen. Jende aunitz bildu zen eta giro ederra somatu zen. Aipatu, Bertan elkarteak hirugarren urtez antolatu duen argazki lehiaketara 30 lehiakide eta 86 argazki aurkeztu direla aurten eta Bertan Egunean ikusgai izan zirela. Epaimahaiak 400 euroko lehenbiziko saria Erratzuko Mitxel Etxenikeri eman zion, 200 euroko bigarren saria Elizondoko Juan Lameirinhasi eta 100 euroko hirugarren saria Elizondoko Edurne Biguriari. Lehiaketara aurkeztutako argazkiekin, elkarteak eskualdean doan banatzen duen 2012ko egutegia osatuko da.

UDALA → HERRITARREN PARTEHARTZEAREKIN

Udalaren ekimenez sortu diren kultur eta hirigintza batzorde irekiak lanean hasi dira

Kultur batzorde irekiak irailaren 7an eginen du hurrengo bilera eta 13an hirigintzakoak

TTIPI TTAPA

Kultur eta hirigintza eremuak lantzeko asmoarekin, batzorde irekiak osatu dira Baztanen Udalaren bidez, eta uda honetan hasi dira lanean.

Udal Kultur Batzordeak dagoeneko bi bilera egin ditu eta ba-

tzordearen funtzionamendua zehazteko izan dira. Funtzionamendu egokirako talde iraunkor baten beharra ikusi da, eta hala, kultur zinegotzi eta teknikariarekin, alderdi politiko guzietako ordezkariarekin, Baztango kultur taldeetako ordezkariarekin eta interesa duen edozein taldea osatu nahi da.

Hurrengo hitzordua ere zehaztua dute: irailaren 7an, asteazkenarekin, izanen da udal-letxeko batzar gelan, 20:00etan. Batzordearen funtzionamendu



ARGAZKIA: ARANTXA ZELAIA

Berroetako mendizaleak Gartzaindik Auzara joanen dira igandean

Mendirako afizioa sortu zaie Berroetan eta horren ondorioz, irteerak egiten hasi dira. Abuztuaren 21ean, adibidez, Berroetatik Auritzerarako bidea egin zuten. Koadrila ederra bildu ziren, 19 lagun. Goiz goizetik abiatu eta eguraldia lagun, eguerdirako ailegatu ziren, Auritzeko Txiki polit jatetxean merezitako bazkaria egiteko. Argazkian parte hartzaile gehienak ikus daitezke egindako atsedendaldi batean. Dagoeneko hurrengo hitzordua ere jarria dago, igande honetan, irailak 4, Gartzaindik Auzara joanen dira. Ea hontakoan zenbat animatzen diren!

orokorra eta barne antolakuntza zehaztea izanen dira jorratuko diren puntuak eta bilera irekia izanen da.

HIRIGINTZA BATZORDEA

Udaleko hirigintza batzorde irekia ere uztailan hasi zen biltzen. Afera honetan, aipatze-

koa da hirigintzako aholkulari berria kontratatu duela Udalak. Prozedura negoziatu itxi bidez egin da, eta Kristina Arregi izan da aukeratu. Urte bateko kontratua egin zaio eta herritarren harrera egunak astearteak (13:00etatik 14:30era) eta ortzegu-

nak (09:00etatik 11:00etara) izanen dira.

Aipatu, bertaldea, batzorde ireki honetan Lurralde Antolaketaren Estrategia eta Eredua izan dela aipatutako gaietako bat eta horri buruz irailaren 13an eginen den batzordean irekian ariko dira.

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBIERRI | BERRA (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDOKO (BAZTAN) | LETTZA | BETEJUI
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDOKO (BAZTANDARRA)

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRLINGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

URDAZUBI

ERREPIDEAK → JOAN DEN ASTEAN HASI ZIREN LANAK

NA 121B errepidetik herrira arteko bidea moldatzen hasia da Mariezkurrena

Lau hilabeteko epea izanen du egin beharreko lanak akitzeko

TTIPI-TTAPA

N 121B errepidetik herriraino doan NA 4402 zatia konpontzen eta zabalten joan den astean hasi zen Doneztebe-

ko Mariezkurrena enpresa.

Obrak hauek 450.000 euroko aurrekontua izanen dute baina Nafarroako Gobernuko Herri Lan eta Garraio Departamentuak %100ean diruz lagunduak izanen dira.

Lau hilabeteko epea izanen dute lanak akitzeko.



ARGAZKIA: LANDER SANTAMARIA

Burdinaren Eguna arrakastatsua

Burdinaren Egunaren laugarren edizioa agorriaren 6an egin zen, Itsas-Begia Euskal Herriko Itsas Ondarea Zaintzeko Elkartearen ekimenez eta XVIII. mendeko lanbidea irudikatuko zuten aurten ere. Ikuskizunaz gozatzea ehunka lagun bildu zen. Eguerdia aldera, burdin mineralak zamatuta zetozen idiak, Zugarramurdiko Faxio Saharrea itzain zutela, heldu ziren monastegi ingurura. Angel Bengoetxea, Jaime Larralde eta Migeltxo Agirrek mineralak betetako buruzareak eraman zituzten plazara eta materiala urrezko txanponengatik trukatzeko ekitaldia egin zen. Zehazki 13 urrezko txanpon balio zuen mineralak, Xabier Larralde abadeak eta Jose Antonio Agirre, Juan Ramon Otegi, Paco Perez Ponce, Patxi Menta eta Juan Luis Sarratea fraideek egindako neurketaren arabera.

ARGAZKIAK: SANTIAGO VILLARES

Pilotaren unibertsoa egin da aurten ere

Bertiz Partzuergo Turistikoak eta Udalak elkarlanean antolatuta, aurten ere pilotaren inguruko hainbat ekitaldi egin dira udan, Pilotaren Unibertsoa deituriko ekimenaren barne. Hiru larunbatetan, paxaka, larru paleta eta zesta punta modalitateen erakustaldiak egin dira, baina ez hori bakarrik. Horren harira, barbakoa –uztailaren 30ean–, patata tortilla lehiaketa –abuztuaren 20an– eta paellada –abuztuaren 27an– ere egin baitira. Patata tortilla lehiaketara, adibidez, 26 tortilla aurkeztu ziren eta hiru sari banatu ziren Iruñeko jatetxe ezagunetako sukaldariek osatutako epai-mahaiaren arabera: tortilla tradizionalaren saria Juan Ramon Otegi eraman zuen, estilo librearena Itziar Galarregik eta aurkezpen onenarena Angel Almandoz baztandarrak. Sari banaketaren ondotik, pintxoak jateko aukera izan zen.



MONTXO OSTATU

Dantzarrietatik 2 km-tara

ТАВЛКО-ДЕНДЛ
АНЗДЛ-БОРДЛ • УРДАЗУБИ

Ерритим инста 10.30etik 02.30era.

ANZABAL INMOBILIARIA

- Yurik Anzabal
- Auto, etxebizitza, hirte eta hiritze enpresak
- Lan-erabilerietan
- Berrina eta Argaria Sektore
- Alkoldaritzan
- Etxeak, etxebizitza, BEZA...
- Inbentario
- Baserri, berrin, zino, etab... salmentak eta aldatzea
- Zinorak

Santiago, 15 • ELIZONDO • T.F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

BESTAK → BURUILAREN 10ETIK 14RA

Sara Korrikaren ondotik hasiko da bortz eguneko besta giroa

Ekitaldi andana antolatu ditu Besten Komiteak

LARUNBATA 10

09:00etatik 19:00etara plater tiroketa Placiden bordan. **17:00etan** Sara Korrika, 10 kilometroko lasterkaldia. **22:00etan** PUNISH YOURSELF taldearen kontzertua. **00:00etan** dantzaldia KOLOKA taldearekin. **Gau guztian** Iparraldeko gaiteroak eta txaranga karrikak animatzen.

IGANDEA 11

10:00etan Meza Nagusia Urruñarrak klikarekin. **Ondotik** itzulian itzuli Tanborrada mariñelak gaiteroekin. **10:30ean** luzean errebotean: Luzaz Gazte (Donibane Lohizu-

ne) eta Azkaindarrak Bat (Azkaine). **16:30ean** karrikan ibilaldia, gaiteroak, joaldunak eta ahate jokoak. **Segidan** herri kirolak: trunkua xutik moz-tuko du Koxe Bikondokak eta sokatiran, lasto altxatzen eta orga altxatzen ere ariko dira. **19:00etan** aperitifa SARAKO KANTARIEK alaituta. **22:00etan** kantaldia BURRUNKA taldearekin. **23:30ean** dantzaldia XITOAK taldearekin. **00:00etan** suzko zenezina. Txaranga itak karrikak animatuko ditu.

ASTELEHENA 12

Goizean itzulian itzuli gaitero eta txistulariekin. **10:30ean** luzean errebotean, txapeldun izandako bi selekzioren artean. **13:30ean** presoen aldeko elgarretaratzea. **Aldi berean** zikiro jatea Olhain Ikastolak antolatuta. **16:30ean** artzain xa-



ARTXIBOKO ARGAZKIAK
Ohiko ekitaldiek ez dute hutsik eginen aurten go bestetan.

kur lehiaketa J. M. Jaurerri jaunaren landan. **17:00etan** esku huska trinketea: Pleka Txapelketaren lehen finalerdian, Ibarola eta Kurutxari, Larretxea eta De Ezkurra-aren aurka; bigarren finalerdian, Alfaro eta Etxeto, Waltary eta Lanberten aurka. **18:30ean** Zazpiak Bat taldearen esku-tik dantza ikusgarria. **20:00etan** aperitifa trikitilari-ekin. **22:00etan** UNAMA taldearekin kantaldia. **23:00etan** dantzaldia SAMAIN taldearekin.

ASTEARTEA 13

Goizean itzulian itzuli gai-

tero eta txistulariekin. **09:30ean** pasaka lehiaketa. **10:30ean** luzean errebotean Nozbait (Hazparne) eta Spuc (Senpere) aurrez aurre. **17:30ean** Joko Garbi errebotean. Lehen partida Sarako Izarra pilota eskolako gazteekin. **18:15ean** Joko Garbi helduen partida: Har doytarrak (Sistia-gue, Godrie eta Biskai) Luzaz Gazteren aurka (Karrikaburu, Etxeleku eta Albistur). **19:00etan** Mutxikoak Kuxkuxtu txaranga-ekin eta txalaparta. **20:00etan** Gaztetxean Jet set come back-a gaua. **20:30ean** aperitifa trikitilari-ekin. **22:00etan** dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin. **Gau guztian** Kuxkuxtu taldea karrikak animatzen.

ASTEAZKENA 14

Goizean itzulian itzuli gaitero eta txistulariekin.

09:00etan trinketea zabaldegian azienda lehiaketa, herriko laborari-entzat. **10:30ean** plazan haurren jostaketak (eu-riarekin kiroldegian). **10:30ean** trinketea Pleka Xoko Torneoaren finalerdi gurutzatuak. **17:00etan** esku huska plazan (Euskal Herriko Bestetako Esku Pilotari Txapelketaren finalerdia). **18:30ean** esku huska trinketea: Pleka Txapelketaren finalerdia. **Aldi berean** trinketea eta plazan bertulariak: Beñat Gaztelumendi, Julen Zelaie-ta eta Ane Labaka. Gai emaiten Karlos Aizpuru-ak. **Ondotik** zozketa. **19:30ean** aperitifa GO-RAINTZI taldearekin. **22:00etan** dantzaldia BI-DEKOA taldearekin. **23:30ean** su artifizialak. **00:30ean** dantzaldia MI-KEL HATS taldearekin. **Gau guztian** Los Incognitos-ek karrikak animatuko ditu.

SARA
HERRIKO ETXEA

Plazan elkar ikusiko dugulakoan Herriko Kontseiluak besta onak opatzen dauzkitzue

SARA RI BARRIONAREN ETA LEZALDARREN SARA ERRIA, LEIHO XIEN 1693-AN

CAFFÉ DE LA MAIRIE

SARA

ARMUA JATEETXEA

ARMUA

SENPERE

TURISMOA → DATU ZEHATZAK LAISTER JAKINARAZIKO DITU TURISMO BULEGOAK

Aurten ere ainitz behehitu da udatiarren kopurua gure herrian

Udatiarrek gero eta diru gutiago gastatzen omen dute saltzaileen arabera

Franck DOLOSOR

Aurten ere agorriko lehen hiru asteetaz aparte, ez da ikaragarriko mugimendu haundirik sumatu herrian duela hamar edo hogoi urte bezala. Oro har, jende gutiago ibili da udan apailatzen diren arratseko ekitaldietan, ostatueta eta bisita guneetan. Aintzira, ahatik, biziki untsa bete da zorbait egunez. Ondoko asteetan udaren irakurketa zehatza eskainiko du turismo bulegoak bainan saltzaile gehienek gauza bera

diote, aurtengo udatiarrek diru biziki guti gastatu dutela gure herrian.

Pilotazaleen biltzarra

Aldi batez gehiago Senpere pilotazaleen bilgunea izanen da buruilaren 16tik 18rat Europako trinkete kopa jokatuko baita. Hiru egunez partida ederrak jokatu dira Gantxiki trinketean.

Mikeliak Ibarrunen

Aintzirako, karrikako eta Amotzeko besten ondotik, orain azken hitzordua etorriko zaigu laster Ibarrungo bestak ospatuko direlaokoz buruilaren 30etik urriaren 3rat. Usaian bezala, xerri tiki errearen jatearekin hasiko dira bestak buruilaren azken ortzi-



ARGAZKIA: EDME ZAMORA

Txirrindulari senpertarrak

Ezaguna da Euskal Herriko herri ainitzetan bezala gurean ere txirrindulazale ainitz badela. Uztailen Frantziako itzuliaz eta egun hauetan Espainiako Vueltaz gozatzen dute, eta orain froga berria proposatzen diegu. Ea nork asmatzen duen nor diren argazki historiko huntan agertzen diren txirrindulariak. Hiru anaiak dira, hiruak senpertarrak eta hiruak zenduak XXgarren mende hastapenean sortu baitziren. Altziburu-ko semeak ziren bainan nor ziren xuxen? Errepusta ondoko aldizkarian...

ral arratsean Inharrea baserrian. Gero ekital-

diak ez dira eskas izanen eta horren berri

emanen du ondoko TTI-PI TTAPAK.

ttipi-ttapa

aldizkaria etxera bidaltzea nahil baduzu, deitu telefono honetara edo eskatu gure web orriaren bitartez:

- Hego Euskal Herria 37€
- Europa 55€
- Baztan, Urdazubi eta Mallerria 31€
- Amerika eta Australia 123€
- Iparr Euskal Herria 55€
- Leitza 15€

(0034)948 63 54 58 • www.ttipi.net

Rafa ZENOZ
TXIFA

Elizondon, 2011ko uztailearen 30ean

Bizitzaren parte izan arren heriotza ezin ulertu Txifa laguna hain laister iristea zure eguna ta betirako ixiltzea zure bihotza 24 urteko mutila jatorra, saltseroa, berezia oraintxe bizitzen hasia beti zurea, kuadrilla berriz noizpait elkartzea beti bezain dotore agur eta ohore plazer bat izan da zu ezagutzea.

ZURE KUADRILLA LAPATINEK

EZKONTZAK

Martxel Elizalde Elizalde eta **Leire Mariezkurrena Perotxena**, Zubieta eta Ezkurakoa, uztailaren 16an Ezkurran.

Esteban Zamora Godoi eta **Lidia Montesinos Linares**, Txilekoa eta Valentziakoa, uztailaren 22an Goizuetan.

Endika Berasarte Arotzena eta **Season Margerite Westover**, Irungoa eta AEBetakoa, abuztuaren 20an Iturenen.

Pablo Abadia Atutxa eta **Kizkitza Zubeldia Goenaga**, Donostiakoak, uztailaren 23an Lesakan.

Mikel Irigoien Irigoien eta **Lidia Ballester Antxordoki**, Lesakakoak, uztailaren 30ean Lesakan.

Mikel Sagarzazu Egiazabal eta **Ainhoa Latasa Otxandorena**, Irungoa eta Oizkoa, uztailaren 30ean Sunbillan.

Juan Mari Apeztegia Ruiz eta **Maialen Gatón Mariezkurrena**, Doneztebekoa eta Errenteriakoa, uztailaren 23an Donezteben.

Ross Kitchen eta **Angela Mercedes Jorquera**, Erresuma Batukoak, uztailaren 23an Donezteben.

Josu Tomasena Losada eta **Ainhoa Paskual Monco**, Etxalarkoa eta Donostiakoa, uztailaren 30ean Etxalarren.

Guillaume Iribarren eta **Marine Meriau**, abuztuaren 13an, Saran.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Maddi Lasarte Barredo, Berakoa, uztailaren 17an.

Kattalin Irigoien Aleman, Gartzaingoa, uztailaren 5ean.

Nahia Mariñelarena Elizalde, Legasakoa, uztailaren 25ean.

Jare Arburua Iturria, Etxalarkoa, uztailaren 30ean.

Lizar Fernandez Fresneda, Lesakakoa, uztailaren 22an.

Iker Telletxea Apeztegia, Lesakakoa, abuztuaren 4an.

Ibai Criado Arruabarrena, Lesakakoa, abuztuaren 4an.

Telmo Badiola Garrido, Lesakakoa, abuztuaren 7an.

Beñat Ariztegi Altzugarai, Lesakakoa, abuztuaren 10ean.

Kaiet Portu Telletxea, Igantzikoa, abuztuaren 12an.

Ane Mariezkurrena Flores, Doneztebekoa, ekainaren 20an.

Narao Mutuberria Salaberri, Doneztebekoa, uztailaren 16an.

Larraitx Dokouto Santesteban, Etxalarkoa, uztailaren 6an.

Evelyne Diana Turean, Etxalarkoa, uztailaren 13an.

Eñaut Berasategi, Sarakoa, uztailaren 11n.

Ninon Blondiaux, Sarakoa, uztailaren 23an.

Noe Salaberri, Sarakoa, uztailaren 28an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Cornelio Iribarren Arrieta, Iturengoa, abuztuaren 13an, 89 urte.

Jean Blot, Sarakoa, uztailaren 15ean, 89 urte.

Adele Errandonea, Sarakoa, abuztuaren 16an, 94 urte.

Angele Leizagoien, Sarakoa, abuztuaren 15ean, 87 urte.

Pakita Oteiza Indabere, Elizondokoa, uztailaren 20an, 83 urte.

Faustina Sukilbide Erramuzpe, Erratzukoa, uztailaren 18an, 91 urte.

Gregorio Bengoetxea Esparza, Elizondokoa, uztailaren 26an, 87 urte.

Pedro Mari Larregi Sanzberro, Arizkungoa, uztailaren 25ean, 74 urte.

Ramon Pernaute Telletxea, Oronoz-Mugairikoa, uztailaren 26an, 87 urte.

Bittori Cruz Agirre, Etxalarkoa, uztailaren 23an, 95 urte.

Justina Etxegarai Zozaia, Lesakakoa, uztailaren 29an, 95 urte.

Santiago Maria Dagerre Maia, Elizondokoa, uztailaren 30ean, 76 urte.

Rafael Zenoz Jimenez, Zigakoa, uztailaren 30ean, 24 urte.

M^a Kristina Elizagoien Argarate, Etxalarkoa, uztailaren 15ean, 81 urte.

Miguel M^a Baztarrika Baleztina, Eratsungoa, abuztuaren 1ean, 61 urte.

Natalia Zubieta Sanzberro, Etxalarkoa, abuztuaren 7an, 89 urte.

M^a Bautista Mariezkurrena Baztarrika, Saldiaskoa, abuztuaren 7an, 85 urte.

Cornelio Iribarren Arrieta, Iturengoa, abuztuaren 13an, 89 urte.

Damaso Elizondo Jaurena, Bozate-Arizkungoa, abuztuaren 20an, 81 urte.

Miguel M^a Zubitur Zestau, Leitzakoa, abuztuaren 21ean, 63 urte.

Agustin Agirre Urrutia, Arizkungoa, abuztuaren 21ean, 79 urte.

Joakin Santesteban Indakotxea, Zubieta, abuztuaren 22an, 86 urte.

Jose Joakin Labaien Urkiola, Leitzakoa, abuztuaren 22an, 89 urte.

Juanito Zubieta Tapia, Lesakakoa, abuztuaren 22an, 64 urte.

Juana Calzado Urroz, Donamariakoa, abuztuaren 22an, 91 urte.

M^a Concepcion Zaldain Agirre, Arizkungoa, abuztuaren 23an, 87 urte.

Pruden Irigoien Uhalde, Aurtizkoa, abuztuaren 23an, 81 urte.

Pepita Goia Lastra, Lesakakoa, abuztuaren 24an, 91 urte.



Miguel Maria BAZTARRIKA BALEZTENA

Eratsumen hil zen, 2011ko abuztuaren 1ean,
61 urte zituela

*Sobera abudo joan bazinen ere,
beti gogoan eta bihotzean
izanen zaitugu.*

ZURE FAMILIA



Juan Kruz IRURETA SARRATEA

2010/08/27az geroztik, betirako zaitugu geure buru eta bihotzetan. Muxu handi bat familiakoen eta lagunen partetik!

*Haritza bezain gizon sendoa,
haizea bezain librea,
famiandako ta denendako
bihotzez borondatea!
Mendian barna hariztietan
zarea onddoz betea!
Horrek bizia ematen datzu
ta baitare irribareta
gure bihotzek errango dute:
kontent da Juan Kruz maitea!*

PILOTA → AURTEN LEHENDABIZIKO ALDIZ JOKATUKO DA

Elizondon egingen da Europako zuzeneko esku pilota txapelketaren kanporaketa bat

Larunbat honetan jokatu da Laxoa plazan

TTIPI-TTAPA | BAZTAN

Aurten lehendabiziko aldiz, zuzeneko esku pilota txapelketa jokatu da Europako klub artean. Modalitate hau hemen bote luzea izenarekin ezagutzen dena da, eta jokatzeko moduak laxoaren antza handia du: jokoaren kontzeptua, kontaktzeko modua, pilotalekua... berdinak dira. Aldatzen den gauza bakarra zera da: laxoan eskularrua erabiltzen dela eta pilotak desberdinak direla.



ARGAZKIA: ONDIKOL
1996an Valentziatik Elizondora etorri ziren hango pilotariak eta Giltxaurdi karrikan zuzeneko esku pilotan aritu ziren.

Lehendabiziko txapelketa honetan Europako 13 taldek parte hartuko dute: bi Belgikatik, bat Herbehereetatik, bi Italiatik, bat Frantziatik, bortz Valen-

tziatik eta bi Euskal Herri-rik: Angeluko Hardoy taldea (Lapurdi) eta Baztan. Taldeak lau multzotan banatuak dira eta hala, beraien artean kanporaketak jokatu di-

tuze. Horren ondotik, azken fasea irailaren 23tik 25era jokatu dute Iruñean.

Baztan taldeak hirugarren multzoan jokatu du, Alacanteko El

Campello eta Angeluko Hardoy taldeekin batera. Eta lehia horretako kanporaketa faseari Elizondon emanen zaio hasiera larunbat honetan, hilak 3. 12:00etan Udalak harrera ofiziala egingen die klub eta pilotariei eta partidak 16:00etan hasiko dira. Guztira hiru partida jokatu dira aurten 150 urte beteko dituen Elizoko plazan. Arratsean, pilotari guztiek elkarrekin afalduko dute, Udalak eta Elizondoko herriak eskainitako afarian.

Irailaren 10ean, berri-ritz, itzulerako partida jokatu da El Campello eta han izanen dira Baztan, Hardoy eta etxeko taldea.

AIZKORA → TXAPELKETAREN X. EDIZIOA

Arrospide eta Lopez Azpilikueta nagusi Ramon Latasa Sarian

Gazteetan Larretxea eta Olano izan dira txapeladun

TTIPI-TTAPA | SUNBILLA

Juan Jose Lopez Azpilikueta eta Anjel Arrospidek bikote eder-rra osatu zuten abuztuaren 11n Sunbillan, San Tiburtzio besten

barne jokatu zen X. Ramon Latasa Sarian. Hiru bikoteren artean indartsuenak eurek izan ziren eta 31 minutu behar izan zituzten lanak akitzeko, bigarren sailkatu ziren Donato Larretxea eta Aitzol Atutxak baino 22 segundo gehiago. Floren Nazabal eta Felix Etxeberriak osatutako bikotea hirugarren gelditu zen,



ARGAZKIA: JOSEMARI TELLETXEA

Txapelketako irabazleak: Olano, Larretxea, Vicente, Lopez Azpilikueta eta Arrospide.

32:36ko denbora eginenez.

Gazteen mailan bertze hiru bikotek neurtu zituzten indarrak eta Oihan Larretxea eta Arkaitz Olano nagusitu ziren, 24:12ko denbora egin ondotik. Ugaitz eta

Aratz Mugertzari minutik gorako alde atezazieten -25:34ko denbora behar izan zuten Mugertza anaiek lanak akitzeko eta Ander Erasun eta Ruben Saralegi hirugarren sailkatu ziren.

Aurten lehenbizkoz egin den gaztetxoan mailan, azkenik, Joxean Etxeberria, Iker Vicente eta Mikel Zabaleta aritu ziren aizkoran eta bigarrena, Daniel Vi-centeren semea nagusitu zen.

Nafarroako eta Euskadiko txingak txapelketak irabazi zituen uztailean Maria do Amparo Xanta Souza. Jatorri brasildarreko kirolari batek herri kirolean irabazten

dituen lehen txapelak izanen dira, baina bera euskalduna ere sentitzen da. 39 urteko emakumea, 14 urte pasatuak baitaramazki Lesakan bizitzen. Txingetan ez ezik,

sokatiran, arpanan eta aizkoran ere probatua da, eta ingudea probatzea gustatuko litzaioke «Herri kirol guztiak ezberdinak dira, baina denak politikak iruditzen zaizkit» dio.

Xanta SOUZA | Nafarroa eta Euskal Herriko txapelkun txingak eramaten

«Pena da gazteek halako tradizioa duten herri kirolean ez segitzea»

A. AROTZENA | LESAKA

Salvador de Bahia ondoko Valença «herri ttiki eta politean» jaio zen duela 39 urte Xanta Souza, baina hamalau urte daramazki bizitzen Lesakan. «Ongi gogoratzen dut eguna, 1997ko otsailaren 19an, dena araro egin zitzaidan, dena ezberdina, hizkuntza ezegunak, baina batez ere paisaiak harritu ninduen, etxeak, dena berdea...».

Herri kirolean hasi zen duela urte batzuk. Beti Gazteko neskekin Nafarroako txapelkun ere izan zen. Hain zuzen sokatiran entrenatzen ari zela, txingekin aritzeko neska bat falta zela eta modalitate horretan probatu zuen. «Hasieran hagitz zaila egin zitzaidan, ezinezkoa iruditu zitzaidan, ez dakit plaza bat egin nuen ere. Pare bat astez entrenatu eta segidan txapelketekin hasi nintzen Iruñean. Urduri nengoan, baina konturatu nintzen posible zela honetan aritzea; ezetz erran baino lehen, lehenbiziko saiatu egin behar dela». Txingetan aritzeko behar diren ezaugarriez galdetuta, «besoetan indarra izateak eta erresistentziak badute garrantzia, baina behatzen posizioa da garrantzitsuenak. Txingari gaizki helitzen badiotuz ez duzu zeregini, eskua irekitzen zaizun puntu batera ai-



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Xanta Souza txapelduna, Ana Mari Berasategi arabarraren eta Estitxu Almandozen artean.

legatzen baitzara eta kitto!. Entrenamenduz entrenamendu ikasten duzu teknika eta indarra hartzen duzu behatzen. Sufritzen jakitea ere beharrezkoa da». Sokatira eta txingak eginda, aizkorarekin ere probatzen hasia da eta ingudearekin ere saiatu nahi luke. «Denak ezberdinak dira—dio Xantak—ez dute zerikusirik. Patxi Larretxearekin entrenatzen dugu astean bitan Mugairin eta heldu den urtean txapelketan ariko naiz. Aizkora polita da, baina hagitz zaila, arpa-

ERREGINA

«Ikusten dute ez naizela Arantzako baserri batekoa, baina ez naiz bereziki begiratu sentitzen, nere lana ikusten dute eta Brasil ez dela bakarrik futbol eta sanba ikusten dute. Orokorrean kirol guztiak gustatzen zaizkigu. Lana bukatu eta adineko jende aunitz etorri zait bere zapelarekin, erranez «hagitz ongi, segi horrela!». Beraz, erregina sentitzen naiz».

na baino zailagoa. Baina gustatzen zaigulako egiten dugu, ez inork behartzen gaituelako». Izan ere, brasildarrak aipatu digunez, «Patxi Larretxeari hainbertze gustatzen zaizkio herri kirol guztiak, denak probatzen bultzatzen gaituela. Bere mundua da eta herri kirola bizi egiten du».

Aurten, Nafarroako eta Euskadiko txingak txapelketak irabazita «helburu eta amets bat» bete dituela aipatu digu Xantak. «Ez nituen espero, egunaren arabera edozeinek irabaz dezake».

ke». Azken urteetan Esther Iriarte narbartearra izana zen txapeldun, «baina sokatiran entrenatzen arazo bat izan zuen eta aurten ezin du parte hartu. Pena da, arearioak baino gehiago lagunak garelako». Iturenen jokatu zen Euskadiko txapelketan 33 plaza egin zituen Arabako Ana Mari Berasategi eta berak sufritu egin zuen marka hori gaintzeko. «Beti urduritzen naiz eta gaizki hartu nuen txinga, 26. plazarako eskua irekia nuen. Nolabait lortu nuen gaintzea».

Herri kirol batean nagusitzen den lehenbiziko kirolari brasildarra da, baina Xantak aipatzen duenez, «ni Brasilgo baserri batekoa naiz, eta han ere ttikitatu aritu behar genuen aizkoran, zama garraiatzen... han eguneroko lana zen, eta hemen berriz kirola eta horregatik gustatzen zait, ttikitako oroitzapenak ekartzen dizkidalako».

Horregatik penaz ikusten du kirola eta ohiturak lotzen dituen kirol hauetan jende gaztea ez hastea. «Kultura hori mantendu beharko litzateke, ez da galtzen utzi behar. Behin adin batean ailegatuta jendeak uztea normala da, Lesakan sokatirarekin gertatu bezala, baina pena da gazteek txanda ez hartzea».



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Doneztebeko ordezkariek eta agintariak, Euskal Herriko txapela lortu ondotik, uztailaren 22an Muskizen.

PILOTA → NAFARROAKO A LEHEN ALDIZ IRABAZI ONDOTIK

Euskal Herriko Herriartekoa ere irabazi du Doneztebek

Hiru partidetatik bi irabazi zizkion Hernaniri

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Nafarroakoan egin zuen bezalaxe, Euskal Herriko 10. Herriarteko pilota txapelketa ere nagusitasunez irabazi zuen Doneztebek uztailaren 22an Muskizen (Bizkaia). Gipuzkoako txapelduna, Hernani izan zuten arerio doneztebarrek eta bi lehenbiziko partidak, kadete eta jubencil mailakoak, irabazita, txapela segurtatu zuten.

Hasieratik pentsatzen bezala, kadete mailako partidak erabakiko zuten finala, bertze bi kategoriatan garaipen nahiko argiak espero baitziren. Unai Telletxea eta



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Telletxea eta Aldabek lehen garaipena lortu zuten kadetetan.

Joseba Aldabek garaipen garbia lortu zuten Altona anai bixkien kontra. 22 eta 9 nagusitu ziren.

Jubencil mailan, Mikel Maia eta Adur Lasak garaipen erabakigarria lortu zuten, Lujanbio eta Murgiondori 22 eta 10 irabazita. Errekakoa 3-0 irabazten joan baziren ere, hernaniarrak 11-10era hurbildu ziren. Baina nafarrak 13-10 ira-

bazten ari zirela, gipuzkoarren aurrelariak min hartu zuen belaunetan eta hortxe hautsi zen partida.

Honela, handien partida jokatzeko bazekiten doneztebarrek txapeldun izanen zirela. Beñat Oronoz eta Joseba Madariagak 10 eta 22 galdu zuten Hernaniko Ojuel eta Gorrotxategiren kontra. Gainera, Orono-

zek min zuen aldakan eta ezin izan zuen bere jokurik onena erakutsi.

Kontuak kontu, denboraldi historiko bati bukaera eman diote Doneztebekoek, lehen aldiz Nafarroako eta Euskal Herriko Herriartekoa irabazi baitute eta Berria txapelketan ere hirugarren izan dira. Sari bana-ketan, Miguel San Miguel Doneztebeko alkatea eta bertze udal ordezkariek batzuk izan ziren, baita Miguel Angel Pozueta, Nafarroako Kirol Institutuko zuzendaria ere.

Patxi Ordoki Doneztebeko prestatzailea kontent agertu zen txapelarekin eta heldu den urterako eskakizun maila handituko dela onartu zuen. Nafarroan pilotaren alde lanean ari diren guzietan eskaini zuten garaipena.

HERRI KIROLAK

Txapelketa andana jokatu da hilabete honetan

TTIPI-TTAPA

Herri kirol saioz betetako hilabetea dator. Izan ere, larunbat honetan, irailak 3, hasita Euskal Herriko hainbat bazterretan Euskal Herriko zein Nafarroako txapelak erabakiko dira. Larunbatean, Euskal Herriko lasto jasotze, txingaramate (gizonetakoak) eta arpana txapelketak jokatu dira Donostian eta Nafarroako txokor biltze txapelketa Berriozarren. Igandean, hilak 4, Leitzan Euskal Herriko Aizkolari Gazteen Txapelketa jokatu da eta II. Mailako Euskal Herriko Aizkolari txapelketako kanporaketa Zestoan (Gipuzkoa). Hilaren 10ean Zazpi Herrialdeen Arteko Txapelketa izanen da Legution (Araba) eta 18an Euskal Herriko I. mailako Aizkolari txapelketaren kanporaketa Arbizun (Nafarroa). Nafarroako II. mailako aizkolari txapelketaren finala irailaren 25ean jokatu da Uharte-Iruñean. **Arkaitz Olano (Leitza)**, Julen Kañameres (Berriozar), **Joxeantonio Loiarde (Zubieta)**, **Xabier Mindegia (Beintza Labaien)** eta Juan Joxe Erdozia (Etxarri Aranatz) lehiatuko dira. Eskualdeko aizkolariei dagokienez, **Raul Castro (Urroz)**, **Patxi Mindegia (Zubieta)**, **Asier Pellejero (Areso)** eta **Jexux Etxeberria (Beintza-Labaien)** finaleraino kanpo gelditu dira.



LAXOA → BAZTAN-ERREKAKO XXXII. TXAPELKETA

Berriz ere Irurita B gailendu da herritarren arteko finalean

Hirugarren Doneztebe eta laugarren Arraioz izan dira

TTIPI-TTAPA | IRURITA

Baztan-Errekako 32. Laxoa Txapelketaren finala jokatu zen abuztuaren 6an Iruritan eta berriz ere Irurita B suertatu zen garaile, 9 eta 5 irabazi baitzion Irurita Ari. Iaz bezala, Joseba Urtasun, txapeldunen sakalaria izendatu zuten finaleko jokalarionena eta Mikel Eizagirrenen saria eraman zuen. Berekin batera, Guillermo Etxenike numeroa eta Jesus Etxenike eta Miguel Bidegain laurdenak aritu ziren talde txapeldunean. Azpitxapeldun izan zen Irurita A taldean, berriz, Jorge Azkarate sakalaria, Igor Urrutia numeroa eta Iñaki Etxandi eta Andres Elizaintzin laurdenak aritu ziren. Partida osoan aitzinetik ibi-



ARGAZKIAK: PEIO IRIARTE ETA LAXOA ELKARTEAK UTZIAK

Joan den urtean bezala, Irurita B suertatu da aurten ere laxoa txapeldun. Iaz bezala, herri bereko bi talderen arteko finala izan zen

li ziren txapeldunak (2-0, 2-1, 3-1, 3-2, 6-2, 6-3, 8-3, 8-5 eta 9-5).

Alberto San Miguel oiztarra, Juan Mari Artaizkoz doneztebarra, Miguel Maritoren arraioztarra eta Jose Javier Elizaintzin iruritarra izan ziren epaile eta Irurita Txuma Prim aritu zen marrak zaintzen.

Hirugarren posturako norgehiagoka estuagoa izan zen eta Doneztebe Ak 9 eta 8 irabazi zion Arraioz Ari, 6-8 galtzen joan ondotik. Donezteberekin Santi Mindedgia, Pascual Bertiz, Jokin Arraztoa eta Koldo Legarra aritu ziren eta Arraiozekin Iñaki Mihura, Jon Gamio,

Asier Zubigarai eta Jesus Mari Lurnagarai.

Sari banaketan, Peio Obregozo Iruritako alkatea, Nafarroako Pilotari Federazioko Ramon Martinez eta Jon Oiarzun, Nazioarteko Federazioko Arrieta eta Pilotarien Batzarreko Josean Arroyo izan ziren, Laxoa Elkartekoekin.

TXAPELDUNAK

| | |
|------|-----------|
| 1980 | IRURITA |
| 1981 | DONEZTEBE |
| 1982 | DONEZTEBE |
| 1983 | OIZ |
| 1984 | OIZ |
| 1985 | DONEZTEBE |
| 1986 | DONEZTEBE |
| 1987 | DONEZTEBE |
| 1988 | OIZ |
| 1989 | DONEZTEBE |
| 1990 | OIZ |
| 1991 | IRURITA |
| 1992 | DONEZTEBE |
| 1993 | IRURITA |
| 1994 | DONEZTEBE |
| 1995 | DONEZTEBE |
| 1996 | DONEZTEBE |
| 1997 | DONEZTEBE |
| 1998 | DONEZTEBE |
| 1999 | ARRAIOZ |
| 2000 | DONEZTEBE |
| 2001 | ARRAIOZ |
| 2002 | IRURITA |
| 2003 | DONEZTEBE |
| 2004 | IRURITA |
| 2005 | DONEZTEBE |
| 2006 | DONEZTEBE |
| 2007 | IRURITA |
| 2008 | DONEZTEBE |
| 2009 | ARRAIOZ |
| 2010 | IRURITA |
| 2011 | IRURITA |

DATUA

8

TXAPEL

Iortu ditu guztira Iruritak. Doneztebek 17 ditu; Oizek 4 eta Arraiozek 3.

irailak 1-14

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Mendia



ARESO-BERA | 2011.09.04-18

Aresoko IV. mendi marxa eta Berako X. itzulia

Areson 23 kilometroko ibilbidea prestatu dute eta 08:00etan abiatuko da. Berakoak 32 kilometro ditu eta 07:00etatik 08:00etara bitartean aterako da.

Bizikleta



IGANTZI | 2011.09.04

XXI. mendi bizikleta ibilaldia Igantzin

Haurrek ibilbide bat eta helduek hiru ibilbide izanen dituzte aukeran, 15, 21 eta 26 kilometrokoak. Haurrak 09:30ean eta helduak 10:00etan abiatuko dira.

Bestak



ARANO | 2011.09.17

Santioetan egin gabe gelditu ziren ekitaldiak irailan

Eguraldi txarragatik Santio bestetan egin gabe gelditu ziren ekitaldiak hilaren 17an eginen dira: pilota partida, puzgarriak, herri kirolak eta bertso saioa.

Organo kontzertua elizan

Irailaren 2an Ignacio Ribas Talensen organo kontzertua Sanesteban Elizan, 20:00etan.

Ospakizunak

LEITZA

Talo eguna

Irailaren 11n egun osoan ekitaldiak. Xehetasunak 28. orrialdean.

Ikastaroak

ELIZONDO

Udako ikastaroak

Irailaren 5etik 8ra Ciga pintorea: Bere garaiako arimaren eta gizartearen interpretea ikastaroa eskainiko da arratsaldez Iruñeko Kondestablearen Jaurregian, Udaletxean eta Nafarroako Museoa eta Elizondoko Museo Etnografikoan. Inskripzioa doan. Antolatzaileak: Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Javier Ciga Fundazioa. Informazio gehiago: www.unavarra.es. e-mail: cursosdeverano@unavarra.es.

LESAKA

Ume eramaile eta oihalezko pardelen tailerra

Irailaren 10ean Ume-eramaileen eta oihalezko pardelen doako tailerra. Nola eraman umea, zergatik, ume-eramaile ezberdinak, korapiloak... 10:00etatik 14:00etara Dasya zentroan. Interesatuak deitu edo idatzi: 691 025855 /centrodasya@gmail.com.

Meditazio tailerra

Irailaren 16an barre-neko pentsamenduen joan-etorriak isilarazten ikasteko tailerra, dohanik. 19:00etatik 20:00etara Dasya

Erakusketak

IRURITA

Rafael Ubaniren lanak Olari jatetxean

Uztailaren 1etik iraila bitarte Rafael Ubani Villarealen margo erakusketa, ostatu ordutegian. Astelehenak itxita.

ELIZONDO

Baztan-Bidasoaldeko Anfas elkartearen 50. urteurrena

Irailaren 19tik 30era 50. urteurrenko erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean, Anfas elkarteak antolatuta.

SENPERE

Mariemi Otaolaren lanak Larraldean

Irailaren 3tik urriaren 1era. Artista bilbotarraren eskulturak ikusgai Larraldean. Ostiraletik igandera 16:30etik 20:30era. Inaugurazioa irailaren 3an, 18:00etan.

Bestak

ARRAIOZ

Herriko bestak

Irailaren 2tik 5era. Xehetasunak 32. orrian.

ELBETE

Gurutze Sainduaren bestak

Irailaren 14tik 18ra. Xehetasunak 33. orrian.

ERATSUN

Ama Birjinaren bestak

Irailaren 8tik 11ra. Xehetasunak 24. orrian.

OIZ

Ama Birjinaren bestak

Irailaren 7tik 11ra. Xehetasunak 25. orrian.

SARA

Herriko bestak

Buruilaren 10etik 14ra. Xehetasunak 41. orrian.

TXOKOTO-ELIZONDO

Auzoko bestak

Irailaren 9an eta 10ean. Xehetasunak 35. orrian

ARANTZA

Eguzkialdeko besta

Irailaren 3an. Xehetasunak 14. orrialdean.

SENPERE

Mikeliak Senpereko Ibarrunen

Buruilaren 30etik urriaren 3ra Xehetasunak 40. orrialdean.

LEGASA

Santa Leokadia bestak

Irailaren 7an, 10ean eta 11n Santa Leokadia bestak. Xehetasunak 548. alean.

Kontzertuak

BERA

PROPOSAMENA

LEITZA

Taloaren eguna ospatuko da Leitza irailaren 11n

Plazaola Partzuergo Turistikoaren eskutik eta Udalaren laguntzarekin, dagoeneko dena prestatu dute Leitza egun honen edizio berri bat ospatzeko. Goizeko 10etan irekiko da merkatua eta tresnen erakusketa. Haurrentzako gudi ibilaldiak izanen dira. Gero, 11etatik aurrera eskualdeko talo lehiaketa (3 lehenbizikoek saria dute), taloarekin egindako plateren erakusketa tabernen eskutik eta haurrentzako talo tailerra. 12etan EHko aizkolari gazteen txapelketa.



zentroan. Interesatuak deitu edo idatzi: 691 025855 /centrodasya@gmail.com.

BERA

Soinu-eskultura tailerra Gaztetxean

Irailaren 5etik 9ra Soinu-eskultura tailerra Kaxerna Gaztetxean, Marcello Liberattok zuzenduta. Dohainik. Izena eman nahi duenak irailaren 2a baino lehen idatzi info@ertza.net-era.

Hitzaldiak

BERA

Autoestimaz

Irailaren 19an *Empoderamiento, autoestima y salud mental* hitzaldi irekia Belandeta aretoan, 18:00etan. Hizlaria: Miren Peralta.

Lehiaketak

BAZTAN-BIDASOA

Boluntarioria eta elkartasunak bideoak

Azaroaren 11n akituko da Bidelagun elkarteak Bertzeen larruan jarri izenburupean antolatutako bideo lehiaketa.

Mendi Itzuliak

ARESO

Mendi martxaren laugarren edizioa

Irailaren 4ean Aresoko mendi martxaren laugarren edizioa egingen da. 23 kmko ibilbidea. Xehetasunak 29. orrian.

BERA

Hamargarren Mendi Itzulia

Irailaren 18an egingen da Mendi Itzuliaren 10. edizioa. 32 kmko ibilbidea. Xehetasunak 11. orrian.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Txakur Ingelesak

Lutxo EGIA

Susa, 2011

Lutxo Egiak idazle bilbotarrak hainbat istoriori egin dio tokia azken ipuin bilduma honetan. Mundutik desagertzeko era aunitz daudela azaldu nahi izan du. Izan daiteke heriotza, kartzela, ihesa edo ezkutatzea. Kontu ezberdinak ageri diren arren, ipuin guztiek horrekin dute zerikusia desagerketaren edo ikusezintasunaren gaiarekin hain zuzen ere: bizilagunen heriotza biziko duen neska gaztea, bere biografia eta iragana ezabatzea erabakiko duen idazlea, John Lennon hiltzeko erabilitako pistola diseinatu zuena... Fikzioa eta errealtateko pertsonaiak eta gertakariak uztartu dituzte egileak eta kontakizun bereziak sortu ditu. Ipuinek ez dute amaiera definiturik eta irakurleak berak erabaki beharko du irekitasun horren aurrean nola erantzun bakoitzari buru barnean sortzen zaizkion galderei.

Musika



Jazz Project

Kike MORA

Baga Biga, 2011

Barakoldoko baxu-jotzaileak talde desberdinetan eta hainbat artistarekin ibilbide luzea egin ostean bakarkako lan batekin dator. Lehenengo notatik jaezaren usaina darion diskoa da 'Jazz Project'. Musikenen ikaskide izandako musikariaren laguntza izan du bederatzik kantuz osaturiko lana egiteko. Jazzarekin loturiko hamaika estilo landu ditu. Musika estilo honek dituen azpiespiloak landu ditu, artista eta garaien arabera egokitu baita. Jazzak ohikoa duen inprobisazioa nabari daiteke kantu bakoitzean, baina aldez aurretik ongi prentsaturako oinarriak ere garbiak dira. Trebetasuna azaleratzen da nota bakoitzean naturalitate sentsazioa inolaz ere galdu gabe. Intentsibitatea eta amodioa baxuaren amarruarekin gozatzeko aukera izanen du diska entzuten duenak.

Internet



Ttipi-Ttapa twitterren

TWITTER.COM

Internet sare erraldoian Ttipi-Ttapa bertze leku bat hartu du uztailetik aitzinera. Aldizkariaren web orrialdean eta Facebook sare sozialari Twitter-eko kontu berria gehitu diogu. Herrietako berriak eta eskualdeko informazioa momentuan eta hitz guttitan erranda. Baztanaldeko, Bertizaranako, Bortzirietako, Leitzaaldeko, Malerrekako, Urumealdeko eta Saraldeko berriak mundu edozein txokotatik esku eskura izateko bertze tresna duzue martxan. 140 karakteretan izanen duzu albistearen berri eta bertatik aukera izanen duzu www.ttipi.net atarira zuzenean sartu eta berria xehetasun osoz irakurtzeko.

Nire aukera



Ixiar ANDUEZA

Berako Erika dietetika dendakoa

«New York eta Kroaziara egindako bidaiak hagitz gogoan ditut»

Dendak uzten dion astia lagunekin eta «ahal bada kirol pixko bat eginez» pasatzea gustatzen zaio Ixiarri. «Mendian buelta bat eman, spinning ere egingen dut, bizikletan ibili, neguan eskia... gorpuzta pixko bat mugitu eta hobe sentitzen naiz». Kirola ez ezik, zinemara joatea ere gustatzen zaio, «neguan batez ere» eta lotarako «liburu bat izaten dut ondoan, nobelak batez ere». Asteburutan furgoneta hartu eta «harat eta honat joatea gustatzen zaigu, Portugalen izan gara, askatasun handia ematen du». Izan ere bidaiatzea hagitz gogoko du Ixiarrek eta alde horretatik, bereziki gogoratzen ditu duela bizpahiru urte New Yorkera edo Kroaziara egindako bidaiak. «Hegazkinez joan eta bertan alokatu genuen auto bat. Zoragarria izan zen, hagitz polita». Noizbait, Argentinara ere ailegatzea gustatuko litzaiok, «baina harat joateko guttienez hilabete bat behar duzu eta ikusi behar lanarekin, diruarekin eta nola moldatzen garen. Gogoia behinpin badut».

ETXEBIZITZAK**salgai**

BERA. Itzea auzoan 97 m²ko pisua salgai. Egoera onean, bainugela berriarekin eta igogailuarekin. Balkoia ere handia. **948 580829 - 637 446110.**

ETXALAR. Zaharberitze den borda salgai, lur eremuarekin. **661 121540.**

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baseria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581 459
anzabal@anzabal.com

ETXALAR. Bi solairuko etxebizitza adosatua salgai, errentan emateko edo erosteko aukerarekin. Estreintatu gabe, zuzenean promotorearengandik. Garajea eta txokoa ere bai. Denak kanpora ematen du. **669 432480/629 443405.**

BERA. Pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, terraza handia. Dena kanpora begira. 36 m²ko atikoa aukeran. **650 981950.**

DONEZTEBE. Egoera onean dagoen pisua salgai. 2 logela eta trastelekuarekin. 114.000 euro, 19 milioi pezeta. **649 472658.**

DONEZTEBE. Ogiberriren gainean pisua salgai. Sukaldea, 2 logela, egongela, 2 bainugela, trastelekua eta 36 m²ko terraza. Dena hegoaldera. **656 770373.**

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58**

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

DONEZTEBE. Parrokia karrikan 130 m²ko pisu eraberritua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela eta balkoi-terraza. **619 374998.**

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

ZUGARRAMURDI. Pisua errentan ematen da. Sukalde-egongela, bainu bat, 3 logela eta terraza ttikia baditu. **675 520339.**

BERA. Eztegarra pasealekuan pisu moblezatuta errentan emateko. **948 630270/ 678 542773.**

ETXEBIZITZAK
konpartitzeko

IRUÑEA. Pisua osatzeko 2 neska behar dira. 200 euro (berogailua barne). **620 747213.**

IRUÑEA. Lagun bat behar da ikasle pisu bat konpartitzeko. **675 714360/ 948 637931.**

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

LESAKA. Azkaine karrikan 24 m²ko lokala salgai. Orain arte garaje moduan erabilia. **667 796439.**

GARAJEAK/LOKALAK
errentan emateko

DONEZTEBE. Aparan inguruan 75 m²ko pabiloia errentan emateko. Argia eta urarekin. **659 613240.**

LESAKA. Plazan garaje itxia errentan emateko. **675 714360/ 948 637931.**

LESAKA. Plaza Berria karrikan, etxabe edo bajea errentan emateko. Bu-

legorako prestatua, berzte edozein lanerako moldatu erraza. Behar baduzu... diruagatik konponduko gara. **948 630287 / 619 530386.**

**GARAJEAK/LOKALAK**
eskualdatzeak

LEITZA. Gaztañaga taberna traspasatzeko. Modu onean. **699 361194.**

LANA**eskaintzak**

BERA. Emakumea behar da ostatu batean su-

kaldari laguntzaile aritzeko. **948 630259..**

BERA. Emakumea behar da janaridenda batean lan egiteko. **948 631388.**

SARA. Jatetxe batean zerbitzari euskalduna eta esperientziaduna behar da asteburuetan lan egiteko. **(0033) 559 542131/ 686 561525.**

BAZTAN. Emakume euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. **689 805677/ 948 580210.**

LANA**eskariak**

Gizonezko bat edozein lanetan ariko litzateke. **618 628276.**

Gizonezko bat edozein lanetan aritzeko prest dago. Esperientziaduna. **610 956130.**

Neska gazte euskaldun bat edozein lanetan ariko litzateke: etxeak garbitzen, adinekoak eta umeak zaintzen... **695 716894.**

Arratsaldean eta asteburuetan **emakume batek** lan egiten luke etxeko lanetan edo adinekoak zaintzen. **639 080811.**

Emakume batek adinekoak zainduko litzateke internan moduan. **678 397046.**

URROZ. Aiton-amonen ilea apain dezaket bakoitzaren etxean. Ile-apaintzaile tituluduna. **689 126822.**

BASERRIADATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(abuztuaren 12tik 19ra bitarteko prezioak)**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 24,00 € (-4,00)

Zerri gizena
1,257 € kilo. (-0,013)

Zerramak:
0,420€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,16 (+0,06)
1.koa 3,86 (+0,06)
2.koa 3,62 (+0,06)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,24 (+0,06)
1.koa 3,96 (+0,06)
2.koa 3,84 (+0,06)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,85/2,95
Zaldi-behorrak: 1,75/1,95
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,90/8,60
8-10 kilokoak: 6,70/6,90

Gizonezko batek **enkofratzaile** edo **igeltsero** lanak eginen lituzke. **☎660 698567.**

ZERBITZUAK
denetarik

PSIKOANALISTA
Kontzultak eskatu orduan
☎ 948 272011 (ordain)
☎ 948 580975
Larrea 14/14 492 0 - ELIZENDO

BOROA
ISOLAMENDUAK
Terminak | Akustikak
Sondak | Soinu-izotzak
Fluor berrak | Eraberritzaile
Erakundeak | Industrieriak
Beharrezkoak - Sobri modurik
☎ 948 427 349 | ☎ 948 272 327
20080

MOTORRAK
tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE
SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

MOTORRA
salerosketak

Renault Kangoo 1.5 dci autoa salgai. Diesela, 2002. urtekoa. 5 plaza-koa. Egoera oso onean. 3.500 eurotan. **☎647 525516.**



Audi A3 2.0 TDI Ambition autoa salgai. 140 cv, 3 ate, gorria, 140.000 km. 12.000 euro. **☎660 368460.**



Toyota Land Cruiser 90 Vx autoa salgai, 2000. urtekoa. 148.000 km., trakzio permanentea eta bi blokeo, disko eta frenoen pastilla berriak, kubieta mixto Graber AT berri-berriak, kristal ilunak, engantxea... karrozeria oso onak dauka, ez kolpe eta ez arrastorik. **☎647 705834.**



Citroen Xsara 1.4 I salgai, 2001eko, baina bakarrik 24.000 kilometro-rekin. Beti garajejan ego-na. **☎695 707644.**

ANIMALIAK
oparitzeko

Zakurkumeak oparitzeko. Pastor aleman nahas-keta. **☎635 744732.**


Hiru hilabeteko ardita-ko zakurkumea opari ematen da. **☎652 729101.**

ANIMALIAK
salgai

Setter ingles zakurkumeak salgai, LOErekin, Radentis Despañaren bilobak. Txertatuak eta desparasituak. **☎620 209663.**

Hispano-arabe con media carta 2002ko **beho-**

rra salgai. Jatorri arabiar-polakoa (MAKHSAM). Etxean jaio eta hezitakoa. Jarrera oso onekoa eta behargile gogotsua. Ez du inolako arazorik. Perratua. Bakunatua eta desparasitua. Prezio interesgarria. **☎679 236689.**



DENETARIK
salerosketak

Kalefakziorako gasolio depositoa salgai. 1.000 litrokoa eta homologatua. **☎948 464183.**

BMX bizikleta eta **mendiko bizikleta** salgai. **☎648 876044.**



Belarrari buelta emateko **piruleta**, traktore handi-arentzat salgai. **☎661 767027.**

Belar idor bolak salgai. **☎660 393436.**

urtebetetzeak



Gazteluko **JOSEBAK** 7 urte bete ditu abuztuaren 31n. Zazpi musu haundi familia guztiaren partetik. Zorionak txapeldun!

Herren **agertu nahi duzu?**
www.ttiipi.net
4 = 8

BERA Zure inguruan klase guzietako inbektuak (konorre, zioarra, armiarma, kuxaka...) eta urrituak segurtasun garrantzitsuak ematen ditu. **GOI EKID** Inbektuak Eraberritzea eta Prebentzioa
☎ 948 427 349 • Zuzen, 40 6 • BERRA

SANTESTEBAN Tailerrak

| | | |
|---|--|--|
| MIRAMAR II DYNAMIQUE 1.600 CV 14.200 € | SEVINC II ELIOTON 1.500 CV 11.200 € | CLER II ELIOTON 1.500 CV 11.200 € |
| ETA GAINERA | | |
| Laguna II Piruleta 2.0 DCI 150 CV | | |
| Mugimendu Tour 1.5 DCI 105 CV | | |
| Kangoo 1.5 DCI 75 CV | | |
| Kangoo Box 1.5 DCI 80 CV | | |
| Suzuki Wagon 1.8 90 CV | | |

19.300€
LAGUNA II ELIOTON 1.500 CV - 11.200 €
NATURALEKIN BERRA
DONEZTEBEKO RENAULT-en KOTXE JA BERRITAN BERRIKO ESKAINTZAK

TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU
Zure laguntza eskertzeko **DOKUMENTU-POLTSA** bat izanen duzu opari


can proiektu zenbakia **15996**

ttiipi-ttapa Egin zuzen TTIPI-TTAPAren proiektu zenbakia zurekin agian. Inbektuak Eraberritzea eta Prebentzioa eta Heren Agertu Nahi duzu? Zure laguntza eskertzeko.

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,35€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



IKER ANZIZAR
IRURUETA doneztebarrak 2 urte bete ditu abuztuaren 11n. Zorionak eta urte askotarako. Iratxe, Urko eta Itxaso.



MAITE ANZIZAR
IRIARTE doneztebarrak 39 urte bete ditu abuztuaren 13an. Zorionak eta urte askotarako familia guztiaren partetik.



Irungo **XUNE ZUBIALDEK** abuztuaren 27an 10 urte bete ditu. Egun ona pasa eta urtero bezala berendu goxoaren zain gelditzen gara. Muxu potolo-potoloa Mirari, Aimar, Unai, Jone eta Landeren, baita familia guztiaren partetik ere. Zorionak guapetona!



Beintza-Labaiengo **AINARA** eta **ASIER** ETXEBERRIARI abuztuaren 5 eta 6an 2 eta 5 urte bete dituztelako zorionak Beintzako eta Urrozko familiaren partetik. Muxu haundi bana eta egun ona pasatu. Eta ez ahaztu berrenduaren zain gelditzen garela!



Sunbillako **OIER AGIRREK** irailaren 16an 7 urte beteko ditu. Zorionak Sunbillako familiaren, bereziki atxa, ama eta Argiaren partetik.



NAROA OTAMENDI ABRIL gure etxeko neskatxak 6 urte bete ditu uztailaren 26an. Mila zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik, bereziki Aneren partetik. Ongi pasa eta prestatu tarta erraldoia!!!



IZEI BEREAU MINDEGIA etxeko nagusi titikiak abuztuaren 19an urtea bete du. Zorionak eta muxu haundi bat atxa eta amaren partetik.



Errotxapeako **MADDI VILLANUEVA** NAVARROK 2 urte bete ditu abuztuaren 3an. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik. Auniz urtez, sorgina!




UXUE APEZETXEA UGARTEK 2 urte bete ditu uztailaren 13an. Zorionak Goizuetako familia eta bereziki Itxaso lehengusuaren partetik.




OIHAN LARRASOAIN URROZ. Uztailaren 2an urte bat bete duen gure bihurritxoari zorionak Iruñeko aiton-amonen partetik.



OIHAN LARRASOAIN URROZ gure txikitoak urtea bete zuen uztailaren 2an. Zorionak pottolo gurasoen eta Urrozko atautxi, amatxi eta izebaren partetik.




NAYA SARRATEA ETXEKOLONEAK 3 urte bete ditu abuztuaren 7an. Hiru muxu haundi familiaren eta bereziki Aimar eta Oihanen partetik.




Urdazubiko **AIORA ALZUIET** OIARZABALEK abuztuaren 2an 2 urte bete ditu. Zorionak pixpirteta! Eta muxu haundi bat Izaroren partetik.




Iturengo birramatxi **ROSALINAK** abuztuaren 23an urteak bete ditu eta **IZEIEK** abuztuaren 19an bete du urtea. Auniz urtez etxekoan partetik.



Lesakako **HEGOI SILVEIRA** ARRIETAK 3 urte bete ditu abuztuaren 18an! Zorionak eta auniz urtez! Muxu bat aitaboa, amatxo eta Arharen partetik.



Zubietako **ENARA** **SANTESTEBAN** MUTUBERRIAK abuztuaren 12an 5 urte bete ditu. Zorionak!




Iruritako **ANE ELUZANTZIN** LARREK urtea bete du abuztuaren 5ean. Auniz urtez eta muxu haundi bat familiaren partetik.




Berako **ENAITZ** eta **JUNE** ERKIZIA LASAGA anai-arrebek abuztuaren 18 eta 22an 5 urte eta 2 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



URKI ARAGON GARROTE zubietarrak 3 urte bete ditu abuztuaren 20an. Elkar dantzatu, jolastu eta kantatuko dugu!!! Muxu handi bat aita, ama, amama eta bereziki Aritzen partetik! Zorionak sagutxu!



Elizondoko **MAIALEN** BALLARENA RIPA 3 urte bete ditu abuztuaren 2an. Zorionak printzesa eta muxu bat familiaren partetik. Au-niz urtez polite!



ALAIN ZELAIETA BERASATEGI beratarak 5 urte beteko ditu irailaren 3an. Zorionak familia guztiaren partetik eta muxu haundi bat!



Sunbillako **BEATRIZ MANTEROLAK** urteak bete ditu uztailaren 19an. Zorionak auniz amatxi, Pablo bihurriren partetik, zure ahizpa Xole eta etxekoan partetik.



BEÑAT eta **OIER** ERRO MUJIKAK elizondarrek 9 urte beteko dituzte irailaren 5ean. Zorionak eta muxu pila bat aita, ama, arreba eta familiaren partetik. Auniz urtez!




Lesakako **JARE UBIRIA** IRIONDOK 3 urte beteko ditu irailaren 1ean. Zorionak eta egun alaia igaro dezazula opa dizu familiak. Muxuak eta mimoak!




Doneztebeko **OIER BELARRA** MARIEZKURRENAK 6 urte bete ditu abuztuaren 26an. Zorionak Ezkurako familia eta atxa, ama eta Nahiaren partetik.



Bera-Arantzako **ANDONI APEZETXEA** ALMANDOZEK abuztuaren 26an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Sunbillako **XANTUX IRIARTE** IBARRAK irailaren 11n urteak beteko ditu. Auniz urtez familia guztiaren partetik eta bereziki zurekin argazkian dauden iloba bihurriren partetik. Ongi pasa eguna osaba! Muxuk.



Aranoko **IZARO LEONET** AROZENAK abuztuaren 3an 4 urte egin ditu. Zure Aranoko familia osoaren partetik muxu haundi bat poltita!



Auniz urtez hirukote! Hagitz ongi pasa zuen eguna eta ea hiruen artean kuadrilla osoarendako bazkari goxoa prestatzeko gai zaren. Muxu haundi bat. Kaxkarrak.



Doneztebeko **URTZI MENDIBURU** ERASUNEK urtea beteko du irailaren 5ean. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki bere lehengusina Iratiren partetik.



Labaiengo **ARTZIBER ERASUNEK** eta Doneztebeko **URTZI MENDIBURUK** urteak beteko dituzte irailaren 6an eta 5ean. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Beintza-Labaiengo **ARTZIBER ERASUN MENDIOAK** 20 urte beteko ditu irailaren 6an. Zorionak kuadrilaren partetik. Badakizu afaria zor diguzula e?



ELAIK irailaren 12an urtea beteko du. Zorionak eta muxu haundi bat ama, atxa, amatxi, atautxi eta izeba-osaben partetik. Muxu haundi haundi bat.



UXUE ALUSTIZA IPARRAGIRRE arantzarrak 8 urte bete zituen abuztuaren 14an. Zorionak eta muxu auniz etxekoan partetik.



Donamariako **EGUZKI** eta **ALAITZ** IRIGOIEN JUANENAK urteak bete dituzte abuztuaren 9an eta 27an. Zorionak familia guztiaren partetik eta espero dugu ongi pasatu izana zuen egun haundietan. Muxu eta besarkada bana.



TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

**DESKONTUAK | ZOZKETAK
ALDIZKARIA MUSUTRUK**
Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

- 547. ALEKO IRABAZLEAK**
***LUDITOYS BAZEN BEHIN... BEITZA**
 Pedro J. TOMASENA | LYCÉEEN
***ERIN 3 LIBURU**
 Txerri Argitaletxea | Aiton APREETXEA | OIKAROS ALICIA
 Antzokiazuzteak | Vitoriano APARZEDA | ELIENEO
***ONIRIART KAMISETA**
 Dolores AGUIRREBE | URJITA
***MARTIKO LOTEA**
 Karmelo ZAURENA | LYCÉEEN
***TTIPI SASKIA**
 Juan Ignazio LOMAZ | KANTZI

BERTSU LIBURUA
Lanku argitaletxea
www.lanku.com

AQUARIUM 2 SARRERA
Donostako Aquarium-a
www.aquarium.com

PUNPALAPAN CD + DVD
Urtebtxea eskola
www.urtebtxea.org

TXOKOLATE LOTEA
Arkupe gozotegia
www.arkupegozotegia.com


KAMISETA BAT
Onddo tx. punto
www.onddotxipunto.com

2 LIBURU
Ttartalo argitaletxea
www.ttartalo.com

DESKONTUAK



Euskara, errazago,



metodika
euskara ikasteko metodologia ikaslea

errosoago

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA
Lesakako Matxinbeltzenea
Tel. 948 637 796
bortziriak@ikane.net



metodika
euskara ikasteko metodologia ikaslea

lehenago

MALERRERAKO EUSKALTEGIA
Donezteben, Rosa Seminario, 6
Tel. 948 451 555
malerreka@ikane.net

LEITZALDEKO EUSKALTEGIA
Leitzako Udaletxean
Tel. 948 610 776
leitza@ikane.net

MATRIKULA ZAITEZ irailaren 30a baino lehen



euskara errazago egiten

ika

www.ikane.net